

«Buztarri»

Nire  
Aztarrenak

Juan Ibarzabal «Buztarri»

Autore eskubideak: **Juan Ibarzabal.**  
Argitalpen eskubideak: © **Bertsozale Elkartea.**  
Azala: **Mikel Euba.**  
Inprimategia: **Hika-Mika Inprimategia, S.L.** -Gizaburuaga-.  
L.G.: BI-2430-98  
I.S.B.N.: 84-89283-15-X

## AURKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| ATARIKOA.....   | 7   |
| <b>BIZITZAN ZEHARREKOAK</b> .....                           | 9   |
| TXIKITAKO GOMUTAK.....                                      | 11  |
| ANTXINAKO BASERRITARREN BIZIMODUAZ .....                    | 17  |
| SOLDADUTZAKO KONTUAK .....                                  | 19  |
| BERTSOTAN, KORRIKAN, EDO BEHARREAN,<br>NONAHI GUSTURA ..... | 23  |
| ETXERIK ETXE BUZTARRIGINTZAN .....                          | 25  |
| DABILENARI PASATZEN JAKOZ .....                             | 28  |
| SOLLUBEPEAN PARAJE EDERRAK<br>ETA LAGUN ONAK.....           | 32  |
| BUZTARRIGINAREN OFIZIOAZ .....                              | 36  |
| BERTSOTAN HARA ETA HONA .....                               | 37  |
| PASADIZO XELEBREAK BERTSOAK TARTEKO .....                   | 39  |
| TXIRRITARENAK.....  | 41  |
| BERTSOLARI-EGUNA MARKINAN.....                              | 43  |
| ZENSURAREN GORABEHERAK.....                                 | 45  |
| MARKINAKO BERTSO-ESKOLAN.....                               | 46  |
| SANTA AGEDAKO KOPLA OHITURA.....                            | 46  |
| MARKINAKO KIROL GIROAZ.....                                 | 49  |
| MARKINA INGURUKO PASADIZO<br>ETA PERTSOANAIK.....           | 50  |
| EUSKALDUNA IZATEA ZER DAN.....                              | 53  |
| 1987KO OMENALDIA .....                                      | 53  |
| ORAIN DALA GITXIKO GORABEHERAK.....                         | 55  |
| HONI ETA HARI IPINITAKO BERTSOAK.....                       | 58  |
| <b>ARGAZKIAK DINOSKUENA</b> .....                           | 69  |
| <b>BERTSO BARRIAK</b> .....                                 | 121 |

Liburu honek daukaz  
nire aztarrenak  
gu lako jende batek  
egin dabezenak  
argitaratzen dira  
batzuen izenak  
irakurri dezaten  
ondoik datozenak.

## ATARIKOA

Kaixo irakurle guztio!!!

Lehenengo eta behin neure aurkezpena egingo deusuet. Juan Ibarzabal naz, baina "Buztarri" deitzen nabe. 1924ean jaio nintzan Erlatx baserrian. Hau Markinako baserri bat da, eta nik dakidanez izen hau erle eta hatx asko egozalako ipini jakon. Nire aita eta ama Juan eta Pantxike ziran, bost anaia eta hiru arreba be baginen. Ameba gazteena jaio eta momentuan hil ei zan. Zortzi jaio eta zazpi hazi; Miguel, Jesusa, Esteban, Jeronima, Isidro, Jose eta ni gazteena. Esteban eta Jose zorioneko minbiziaz hil ziran. Aitita bat be ezagutu neban, nire amaren aita.

Erlatx baserriak ehun oin, hogeita zortzi metro daukoz luzeran, etxe handia da. Berrogeita hamar bat metrora metal iturri bat be badago. Basoz ez da haundia baina bai badaukoz solo eta zelai ederrak.

Baserriak ez ditu ehun urte edukiko oraindik. Gogoratzen naz ni txikia nintzala, orain dala hirurogei urte inguru nire aitak eta amak egin ebela sukaldia eta doladie.

Nik lau urte nebazanean, nire gogo haundienetakoa sei urte edukitzea zan. Halako baten heldu jatezan sei urteok eta orduan izan zan gure aitak erosi ebazanean bost ardí eta aharia. Ah!, nire poza ardí zaintzera joateko, baina hareen artean aharia egoan eta hamaika burruka egin genduan alkarregaz. Nire ilusioa ardí asko edukitzea zan, baina ez ziran hamabost baino gehiago izaten. Sagardoa be egiten genduan sagasti eta sagarra jotzeko tresnak genduzala aprobetxatuz. Auzoetako sagardoak be askotan gure etxean egiten ziran.

Hau dana egiteko ura, lketza baserritik (1,5 kilometrora dago), ekarten genduan tubo galbanizatu baten bidez. Tubo hau arin hondatzen zan, lur barrutik joan behar izaten ebalako. Orduan ez zan izaten oraingo tuborik. Horregaitik gure aitak behar asko egin behar izan eban ur kontuan.

## ***Bizitzan***

### ***zeharrekoak***

#### **TXIKITAKO GOMUTAK**

Erlatx baserria gure aitaren denboran egindakoa da. Bertako ugazaba Etxebarriko Jose Maria zan eta behi talde bat ipini eban. Han egon zan nire aita beharrean. Korta harek hogeita bi ganadurentzako tokia eukan. Simaurra bagoiaz karrilan ataraten zan eta askak txorro eta guzti ziran, ganaduari ura emoteko. Ez ziran leku asko horrela preparatuta.

Beranduago baserria nire aitak erosi eban. Iturretatik Markinara joateko Erlatx aurretik pasatzen zan andabidea. Gaur egun ez da erabiltzen beste leku batean bidea egin ebelako, baina denbora hareetan astro erabiltzen zan, gehienbat jai egunetan mezatara joateko, ze orduan orain baino sinismen gehiago egoan.

Entzunda daukat orain laurogei urte Erlatx baserrian ikasketak emoten eutsezala han inguruko ume guztiei Etxebarriko Satzu baserriko seme batek, abadea bera. Nik ez neban hori ezagutu, ni jaio orduko zan eta, baina abadea ezagutu neban Markinara etorri nintzan batean. Ordurako urte asko ebazan. Nire baserriko saloian emoten ei ziran eskolak. Izan be oso haundia zan, han ume asko kabituko ziran, ze ni akordatzen naz gari danak saloian sartzen zituela eta baita makinak be.

Sala horretan ikasi genduan bizikletan ibiltzen be. Hainbeste buelta emoten genduan bizikleta zapar baten gainean jarrita, inoiz kolpe ederrak hartu be bai, baina hareek ixilik pasatzen genduzan aitak siesta botatzen eban bitartean.

Jai egunetan barriz Barendako auzora joaten ginen gure batzartxoak egitera. Barendak hiru bizitza ebazan. Pagadiz beteta egoan zelai batean alkartzen ginen hamabost edo hogeit neska eta mutil, kartak eroan eta lur gainean jokatzen genduan, han pasatzen genduan denbora. Gero han ados jarri eta Markinara edo Barinagara bajatzen ginen, gehienetan Barinagara. Erlatxek baeban etxetik hurrar karabi bat be, han kare asko egiten zan etxerako eta inoiz kanporako be bai.

Nire gurasoak etxetik joaten zirenean, ah! gure poza!, asmatuko genduan gauza onen bat. Horreetako egun batean pentsatu genduan txakurrari jakea janzteia, ea zelan geratzen jakon, han genbizan geure txakurragaz auzoko Josepa agertu zanean, orduan txakurrak eskuetatik ihes egin euskun eta hor doa jake zahar baltz haundiagaz

emakumearengana zaunkaka. Josepak ez eban igarri zer zan eta han joan zan garraixika... ah! gure bildurra aitari esango utsolakoan.

Beste baten be ipini genduan txakurraren jatekoa lapiko estu samar batean. Bere burua justu sartzen zan. Gogoratu jakun nor edo nor etorreanean hantxe lapikoan jaten emotea, honela kanpokoari usainik ez hartzeko. Baina kanpoko andrazko bat hurreratu zanean -bai arin be hartu usaina- han joan zan lapikoa buruan sartuta eukala, zaunka baten; holako baten unen eutson lapikoak burutik eta hamar zati eginda geratu zan. Holakoak egiten ibiltzen ginen txakurragaz.

Nik hamaika urte nebazala gerrea hasi zan. Lehengusu bat neukan Bilbon denbora hareetan gure baserrira etorten zana. Ni baino urtebete gazteagoa zan, baina horrek eskola pixka bat eukan, nahiz eta euskerarik jakin ez eta nik erderarik ez. Isidro eban izena, baina guretzako Isidrin. Nigaz ikasi eban euskera, eta euskeraz hitz egiterakoan neugaz bakarrik egiten eban, beste danei erderaz egiten eutsen, baita bere gurasoei be, nahiz eta hareek euskeraz erderaz baino hobeto jakin.

Harek irakatsi eustan irakurtzen eta idazten. Nik hari euskeraz hitz egiten irakatsi neutson, baina ha izan zan nire maisua. Hamar eta hamaika urtegaz alkarri irakastea ez al da nahikoa?

Gerrea Bilbotik pasatu zanean joan zan eta nik pena haundia hartu neban. Handik urte gitxira tailer batean hasi ei zan beharrean. Gazterik ezkondu zan, baina gaztetan hil be. Ez dakit seme bat edo bi eduki ebazan. Entierroan izan nintzan, eta emaztea ezagutu be bai, baina geroztik ez daukat hareen barririk. Pozik ikusiko neukez baina ez dakit non bizi diran.

Gerra kontuari segituz, gogoratzen naz ekainaren 18an eta Errosarioko domekan heldu zirela, Mandiola, Urkarai, Kalamua, Maxa... horra parajera. Handik aurrera tiroa, kainonazoa, eta bonbardeoa ez ziran falta izan. Kainonazoak beste ogi zati bota balebez hobeto izango ginen.

Zazpi hilabete t'ardi han pasatu ebezan, ez atzera ez aurrera. Gu mutikoak ginenez kontatu egiten genduzan eta Urkaraitik Markinara berrehun kainonazo botatako egunak be izan ziran, baina danak ez ziran lehertzen, beraz nahiko suerte izan eban Markinak gehiago apurtu ez ebenean.

Egun batean milizianoak gure etxe aurrean jarri ziran euren kainoi eta guzti, eta botatzen hastera joiazala beste aldekoak bota eben eta baita kainoiari bota be. Pozik lehertu ez zanean, bestela danak hilgo ziran. Orduantxe alde egin eben milizianoak euren kainoiak hartuta.

Beste baten be jarri ziran gure etxetik 200 bat metrora, aurreko basoetan, jauregi baten ondoan. Han ipini ebezan kainoi handiak kamino hegalean. Gogoratzen naz egun batean nire amak Markinara bialdu ninduala mandatu bat egitera; hasi nintzan atajo batetik, baina ha zan infernua, hasi ziran kainonazoak, aurretik, atzetik... horrela eta guzti joanaldia egin neban, baina hainbeste botatzen eben, pentsatu neban: "aurrera joaten banaz ez mandaturik ez ni ez gara helduko etxera". Buelta emon eta heldu nintzan etxera, han egoan ama egon ezinda. Esan neutson: "banator, bai, baina mandaturik ez dot egin". Eta amak esan eustan: "ez deutso ardurarik, buruan uleak aina bider damutu jat bidaltzea, hilgo zaituela pentsatu dot". Ama on batek bere umea maite dauan lez maite ninduan amak.

Gogoan dot zelan esaten neutson: "ni bertsolaria izango naz". "Ea, kanta, ba" -esaten eustan. "Oraindik ezin, haundia hazitakoan"- nire erantzuna.

Askotan umetan egiten diranak barregarriak izaten dira; amaren kontsejuak gogoan izaten dira, baina askotan ez dira behar dan lez erabiltzen. Gure amak baeban ohitura umeei esateko "emoten jatzuena ixilik jan behar da, kanpora zoazenean hori kontutan euki". Ba, Markinan baegoan tabernari bat gure etxetik bainentzat parrak eroaten ebazana. Urte hareetan be eskatu eutson gure amari, eta amak esan eutson nire anaia Joseri: "arratsaldean baina-parrak egin eta eroan Txori-Bentako tabernara". Nire anaiak zortzi-hamar urte izango ebazan orduan, hartu ebazan parrak bizkarrean eta han joan zan tabernariarengana. Tabernariak oso ondo hartu ei eban, sukaldera sartu eta han jarri eutson ardaa, ogia eta gaztaia ia osoa. Jaten gustura hasi ei zan, baina gero kontuak, tabernariak esaten ei eutson... "jan mutiko, hori jateko da eta"... Amak esandakoa be gogoan eukan, "emoten dana ixilik jan behar dala".

Eta horrela, dana jan ei eban, haixiautako txahala lez etorri ei zan etxera. Gehiago ez euskuen baina-parrarik eskatu.

Beste kasu bat, hau be nire anaia Joseri pasatu jakon. Barinagara joan ei zan erromerira eta han haruntz eta honuntz lagunekaz aparte geratu zan. Etxerako ordua heldu zanean, han joian bera bakarrik etxera, zirimiria hasi eta gure terrenoetako sarreran motea edo lubana esaten jakon bideko basak ez zapaltzearren beste leku batetik joaten ginen, baina metro bat inguruko saltoa egin behar izaten zan. Gaua oso iluna egoan, eta harek ez eban pentsatzen han ezer egongo zanik. Halako batean egiten dau salto, eta etxeko behorra bertan etzunda egoan; joanaldia egin ei eban zamatik kolpeta zer zan ez ekiala. Halako batean eskapatu ei eutson eskuetatik eta han joan zan zelaian behera putzak eta uzkerak botatzen, orduan pentsatu eban etxeko behorra ete zan.

Tripak ahoan ebazala heldu zan etxera eta lehenengo sukaldera sartu zan, pentsatzen sustoa pasatzeko zeozer jan egin behar ebal. Zabaldu eban armairuaren atea, eta barrutik kanpora joten dau katuak paparrean eta ia hor doa atze-atzeka. Lau minuturen barrean bigarren sustoa. Ezer jan ez edan barik ohera joan ei zan. Josek esaten eban gau haretan sorginak edo deabruak bere bueltan ibili ebazala. Barre egiten genduan holakoak kontatzen hasten zanean.

Hamabost urte nebazanean beharrean hasi ginen Jose anaia zaharrena eta biok latoneria batean. Gure nagusia Mateo Kazalis zan, lau edo bost mutil ebazan beharrean. Ha abeslari ona zan, laurogei urtegaz beharra egiten eban bitartean abestuz ibiltzen zan geu be animatuz.

Han beharra egin ondoren gaueko eskolara joaten ginen, baina hara orduko baserri bat egoan, tejobanan zortzi aruako harrí bat eukana, guretzat ha zan eskola garrantzitsua erropak apurtu eta zikintzeko...

Eskolan Josu izeneko lagun bat neban alboan, beti niri kopiatzen ibiltzen zana. Baten idatzi neban "Josu es malo", eta berak be bardin, konturatu be egin barik. Maixua konturatu zan eta handik aurrera "Josu es malo y enreda mucho" ipintzen eban.

Neguan hilabete egiten genduan gaueko eskolan. Tailerrean eguneko hamar errial irabazten hasi ginen, gero apurka-apurka soldata jasotzen joan ginen. Diru honegaz jai egunetako abarketak erosi eta eskola ordaindu eta gero, ez zan asko geratzen.

Hiru bat urte egin nebazan lantoki haretan. Han nenbilela hil jaten ama 58 urtegaz. Gero beste tornileria batean ibili nintzan soldadutza egitera joan arte.

## **ANTXINAKO BASERRITARREN BIZIMODUAZ**

Baserri gehienetan lau andra-gizon bizi ohi ziran, zahar eta gazteak. Gazteak familia hazten eta zaharrak harei laguntzen. Goizean goiz jaikitzen ziran ohetik, goizeko bostetarako han egongo zan amuma eskubete kafe hartu, mahai gainera bota eta botila bategaz apurtzen.

Beheko sua be amumak bizten eban hauspoagaz putz eginez, eta baita ardiaren ulea gardatu haria ardatzagaz egiteko. Honegaz kaltza lanazkoak egiten ziran.

Andra gaztea izaten zan oremahaia garbitzen ebana ogia egiteko. Hau egiteko eguna zapatua izaten zan. Honetarako labeko sua bizten zan eta han egiten ziran zortzi edo hamar ogi eta beste sei bat arto-opil astea pasatzeko.

Oremahaiak 1,30 m eukitzen eban luzeran eta metro erdi bat zabaleran. Behea estu samarra zan eta gorantz zabala, azpian bi kaxa edo arrastontzi ebazan. Honeek uruna galbaian pasatutakoan birrina eta zahia gordetzeko izaten ziran, gero txahalei emoteko. Oremahaia garbitzeko asie deitzen jakon tresna bat izaten zan, apeak zuritzekoa lakoa baina txikia. Baita arasa deitzen jakon platerak eta sukaldeko tresnak gordetzeko armairu modukoari, goian baldak eukitzen ebazanari. Gaur ikusten ez diran tresna asko goten ziran denbora hareetan.

Denbora hareetan asko ibiltzen ziran abarkakin. Abarkak egiteko patroiarri abarka-ola deitzen jakon eta ganadu-narruagaz egiten ziran. Beste tresna bat be izaten zan abarka-ziria deitzen jakona. Honegaz zuloak egiten jakozan narruari, eta josten laguntzeko erabiltzen zan.

Zumitzezko ontziak be asko erabiltzen ziran: astootzarak, sarie, kopeleta, otzara luzea, beste bat gariak garbitzeko artzie, hau be zumitzez egina. Beste ontzi batzuk be izaten ziran, neurritzat erabiltzen ziranak. Honeek olezkoak ziran. Honeek dira izen batzuk: anega erdikoa, imiña, imillaune.

Imillaunek bi leku eukitzen ebazan, alde batetik imillaune eta beste partetik imillaun erdia. Sasoi hareetan egurragaz behar asko egiten zan, ardatzak, torniloak eta zer ez...

Buztarriekaz be transporte asko egiten zan, idiekaz, trakulu gainera arbola-hondoa altzatu eta basa-lokatzetan tatarrez kamino ondora ekarri, eta gero bolantean, trakulu gainean ipini eta Markinatik Ondarroara edo eroan behar zan lekura eroaten eben. Antxina trenak ekartzen ebazan kargak idiekaz partitzen ziran.

Gogoratzen naz zelan gerra ostean, kamioneta bat egurraren suagaz ibiltzen zana ezagutu neban. Gasojenoa edo holako izenen bat esaten eutsen. Kabinaren alboan eroaten eben holako galdara moduko bat, barruan sua egin eta horrela ibiltzen zan. Eza baino hobarik ez dago gizona argitzeko.

Sasoi hareetan baserri ugari ziran ardi asko ebazanak, batzuk ehun arditik gora be bai. Orduan esnea jaisteko egurrezko ontziak erabiltzen ziran. Ni artzain askoren etxeetan lo eginda nago eta hareetako batean gauza kurioso bat ikusi neban, ontzi batetik beste ontzira botaeran ontzi hutsaren gainean pasadorea asunekaz ipini eta hantxe pasatu asunetan. Eta nik galdetu neutson ea zergatik holan egiten eban, eta esan eustan ardi-esneak despogu asko edukitzen ebala gaztai ona eta garbia ataratzeko eta hor pasatu ezker esnea garbitu egiten zala.

Lehen etxe danetan egoten zan beheko sua be eta tximiniatik behera kate bat egoten zan, baserrian laratza esaten jakon tresna bategaz, hantxe eskegiten eben galdarea esnea egosteko.

Badaukat entzunda be, nahiz eta sekula ikusi ez, harriak sutan berotzen ebezala, eta gero esnetan sartu, eta honen berotasunagaz esnea egosten zala. Orain ez dakit edozein harrik balio eban ala berezia behar zan.

Antxinako kontuekaz jarraituz, Markinan antxinatik ahotik ahora datorren istorio bat be badakit. Nire amak esaten eban bere amumak esaten ebala Xemeingo eliza aurrean urkatu ei ebezala bi mutil eta urkatzerakoan batak ez eukan berba egiteko ahalmenik, baina besteak egin eban sermoia Zumiña baserritik entzun ei zan, eta bi kilometro pasau egongo dira.

Hasi ei zan esaten lehenengo ohostu ebana jostorratza izan zala eta amak esan eutsola "ekarri hurrengoan be zuk", eta holan jarraitu ebala lapurretan. Esaten ei eban "amaren kontsejuagaitik nora heldu nazen".

Xemeingo eliz aurrean arta-arbola bat dago, ez dakit hori izango zan, ala beste bat. Hareek urkatzen ikusteko arta haren gainera igotzen ei zan jendea, baita mareatu eta arta gainetik behera jauziak be izan ei ziran.

## **SOLDADUTZAKO KONTUAK**

Martiaren 5ean Donostiara eta handik Lezora instrukzioa ikastera. Hiru hilabete pasa eta gero barriro Loiolara bialdu ninduen asistente moduan. Nire alfereza Elgoibarko Pedro Azpiazu zan, oso mutil jatorra, danok estimatzen genduan. Azkenean Don Antonio sendagilearen alabeagaz ezkondu zan.

Denbora hareetan jai izaten nebanean Hernani, Tolosa eta hor ingurura joaten nintzan.

Nire bizitzako lehen bertso txapelketa Tolosan ikusi neban. Bertan Baserri, Uztapide, Saiburu, Hernani Txikia, Zepai, Mitxelena eta Kortajarena egozan. Bai gustura ikusi bel.

Handik lasterrera beste saio bat ikusi neban Baserri txapeldun geratu zanekoa. Saio horretara ez zan joan Uztapide. Handik honuntz nik ikusi bako bertso txapelketa gitxi geratu jat.

Gure hurrengo kintoak etorri ziranean Orio gainean egon ginen instrukzioak erakusten. Han nire alfereza lizentziatu zan eta amaitu zan nire bizimodu ona. Gure konpainia frontera egoan eta nik be hara joan behar izan neban.

Hartu neban trena eta Donostiara joan nintzan, handik Iruna, eta handik Elizondora, han amaitzen zan trena. Gaueko orduak ziran eta nun egon ez nekian. Hasi nintzan, ibiltzen joan eta joan, ez egoan ez etxerik ez kristinaurik. Eskerrak halako batean patrullan ebizan soldaduak, nire konpainiakoak agertu ziran, bestela han joango nintzan Frantzia aurrera. Gero Valladolideko alferrez bategaz egon nintzan beste hilabete batzuk.

Gogoratzen naz zelan Gabon bezpera batean etxean nengoela joan behar izan neban barriro be soldadutzara.

Amaran sagardotegi bat egoan eta bertan ospatu genduan, gero handik beste taberna batera, neskamea egin genduan lagun eta danak esaten eusten, "botaiozu neskameari bertso bat". Taberna jendez beteta eta ni han bertsotan, ha zan giro ederra!, baina kuartelera joan behar. Pentsatu genduan partea borratu eta barriro kalera urtetea, baina ahaleginak egin arren ezin izan zan, eta azkenean kalabozoan amaitu genduan Alberto Arregi, Segundo Aranguena eta hirurok.

Han etorri zan betozkodun sarjento bat eta prebentziora bialdu ginduzan manta bategaz harri hotz gainean lo egitera. Ez naz gogoratzen lo ederragorik sekulan egin dodanik, besteek ezin lorik egin nire lo-zaratekin. Albertok pentsatu eban goizaldean konpainira joatea lo pixkat egitera. Abrigoa hartzerakoan tiratu eutson eta ia erdibitu eban atzeko jostura. Goizean diana jo ebenean azkar formatu behar, Alberto han hasi zan abrigoa konpontzen, azkenean hiruron artean alanbre bategaz josi genduan. Formatu ginen eta eskerrak errebista pasatueran ez ziran konturatu, bestela zati bateko arrestoa izango zan.

Trean sartu eta Iruna joan ginen, han beste tren bat hartu behar genduan. Sarjentua hasi zan gure izenak irakurtzen: Alberto Arregi, Juan Ibarzabal, Segundo Aranguena, eta gu alkarri begira -"zer esaten dau honek?" -"a descargar el vagón". Bagoi bat hustu eta beste bat bete; ha zan panorama, euria bota ahala.

Ailegatu ginen Elizondora; han be guk hustu behar bagoiak. Gaueko hamabiak eta ez zan euria geratzen. Nik hartu nebazan berrogei bat kilo bizkarrean, fusila, ametrailadora, neure manta, erropak, danak aldean. Goizeko zazpiretan heldu ginen Urdaxera. Eskerrak aurreko gauean ondo lo egin neban. Noiz edo noiz komentua izandako etxe batean egon ginen; handik Dantxarinearara astro joaten ginen. Zugarramurdira bost edo sei kilometro egozan eta kamino hegaletan bukoiaroak egoten ziran; guk goiko tapoia kendu eta goma bategaz dezente edaten genduan, baita kantinplora bete be beste egunerako. Orduan kontrabando asko izaten zan. Frantziako emakumeak Dantxarinearara asko etorten ziran. Harrapatu ezkerre gure patrullagaz gaua pasatu behar izaten eben. Handik Iruna eroan eta muga pasatu behar, barriro Frantziara. Niri emakume hareek pena handia emoten eusten.

Halako batean heldu zan abuztuaren 10a. Hango brigada batek geure erropak entregatzeko esan euskun, eta bai gustura entzun be!. Arratsaldeko hiruretan urten Urdaxen eta gau beranduan heldu ginen Elizondora. Hiru lagun ginen, bi Aulestikoak eta ni. Hasi ginen ohe bila, eta halako batean bilatu genduan baina ohe bat eukana bakarrik. Hirurok egin genduan bertan lo. Biharamonean jagi eta iluntze alderako etxera. Ha izan zan deskantzua!!!.

Bost anaia ginen eta lauk egin genduan soldadutza. Lauron artean hamazazpi urte. Askotan esaten neban, honeek urteok Ameriketara pasatu bagenduz beste txori batek abestuko ebala. Soldadutza alkarregaz egin genduan lagunok sarritan esaten geuntson alkarri: "hemendik askatzen garenean bazkari bat egin behar dogu alkarregaz" eta baita egin be.

Berrogeita zortzian egin genduan lehenengoa eta orain arte huts bat egin dogu, Elgoibarko uholdeak izan ziranean, beti bertan egiten dogulako bazkaria, eta aurten ezbehar batzuk izan diralako. Hori baino alkarre ederragorik urtean zehar ez dira asko izaten. Eskoriatzako Esteban Arrieta izaten da bazkari ponon gidari.

**BERTSOTAN, KORRIKA, EDO BEHARREAN,**



## **NONAHI GUSTURA**

Bertsolaritzatik kanpo, korrika egitea be asko gustatu izan jat. Inoiz egiten genduzan apustuak nork korrikan arinago egin. Behin baten Markinatik Etxebarrira joan eta etorri ezetz hoge minututan egin jokatu eusten, eta baita egin be, hamazortzi minututan. Nire aita be korrikako txapelketa baten lehenengo gelditu ei zan.

Denbora haretan, ez zan orain lako preparatzeko erarik izaten, ez eta jateko nahikoa. Orduan, nahiz eta dirua eduki, ez zenduan bilatzen ez erroparik ez jatekorik. Albarka batzuk eta jake bat eduki ezker konforme, besterik ez egoan eta.

Gure erromeri-tokia Barinaga zan. Dantzan egiteko pezeta bat behar izaten zan, eta beste kuartilo bat edateko dirua izan ezker pozik. Mahaian jartzen ginen arda pixka bat edanez eta bueltan bertso bat kantatzen ez ebanak, zigorra. Zigor hori kuartilo bat arda ordaintzea izaten zan, eta guk, diru gitxi genduanok kantatu egin behar, dirua manejatzen ebanak pozik, arda edan eta bertsoak entzun. Barinagan gustura entzuten zan bertsoa; guk holan gozatzen genduan, batzuk kantatzen eta beste batzuk entzuten.

Nire andragaia be alde horretakoa zan, Itxurran baserrikoa, orain nire emaztea dana. Hogeita bederlatzi urtegaz ezkondu ginen; biok kintxo bat gara. Nire emaztearen ahiztea Ondarroan bizi zan, eta taberna bat eukan, "Bar Iparragirre". Nire emazteak han egiten eban beharra, eta ni baserrikeri baserri ibiltzen nintzan buztarriak egiten.

Gehienetan aste osoa kanpoan pasatzen neban eta etxera bueltatzen nintzanean juerga ederrak botatzen genduzan Patxi Iparragirre (nire koinatua) tabernako nagusia, Pello panaderua (Ermuko semea), Ondarroan bizi zana, eta hirurok.

Nire koinata Josefak hamarretakoa ipintzen euskun, eta gu ha jan ondoren bertsotan egiteko moduan jartzen ginen. Pello hori oso alaia zan, gitarra jo eta abestu gustu handiagaz egiten eban. Ha inguruan baegoan derrigorra zan bertsotan hastea. Azpillaga be orduan Ondarroan bizi zan. Hamaika saio egin genduan alkarregaz, gu bertsotan eta "Porru" anaiak (6 edo 7) abesten. Gustua emoten eban hareei entzuteak. Ondarroan asko dira bertso eta kantuzaleak.

Zazpi urtean ez genduan familiarik izan, lehenengo umea izan genduan Markinara etorri ginen. Nire anaia zaharrenak, Migelek, eta biok etxe zahar bat erosi genduan eta apurka-apurka konpontzen joan eta hementxe bizi naz, neure familia be hemen hazi dot, bi neska eta mutil bat. Markinara etorrieran tornilerian hasi nintzan beharrean, ze ordurako buztarrigintza murriztuta egoan aurrerakuntzak dirala eta. Baserri asko hustu ziran garai haretan, 1955etik 70era bitartean. Baserrikeri askok pinua sartu eta kalera alde egin eban. Tornileria haretan hiru bat urte egin nebazan; gero beharrik ez egoala eta gehienok kalera alde egin behar izan genduan.

Joxe nire anaia "Esperanza y Cia" lantegian ebilen eta hari esan neutson ea bertan beharrik egongo ete zan. Handik denbora gitxira barruan nintzan almagaz beharrik egiten. Behar horretan hamar urte egin nebazan, baina ha amaitu zan egun baten mendira joan nintzanean pagoak astilatzera. Pago erdi batek beste arbola baten kontra belauna harrapatu eta sei hilabete pasatu nebazan bajaran. Gero lantegiko guarda ipini ninduen beste hamahiru urte, eta erretiroa hartu neban.

## **ETXERIK ETXE BUZTARRIGINTZAN**

Buztarriak egitea gaztetatik izan dot gogoko. Lehenengo buztarria kutxilloaz egin neban. Behin goiz batez, Azpeitira joan nintzan ikasteko asmoz, Presalde deitzen deuten buztargilearengana, eta suertez etxean topatu neban, beti batetik bestera ibiltzen zan-eta. Nire asmoa azaldu neutson, eta "ofizio hau zaila da, ni urte askotan nabil baina oraindik ez dut ikasi" erantzun eustan. Orduan barre egin neutson, baina arrazoia eukan.

Nire lehen ikasgaia hartzeko Oriora joan nintzan beragaz buztarri bat konpontzera eta handik Zarautzera. Honeek amaitu ondoren, Markinan bat egiteko geratu ginen hamabost egun barru eta esan genduan lez deia hartu neban Etxebarrira joateko. Tomasenek tabernan alkartu ginen, eta parroko batek baino esplikazio gehiago emon eustan. Hareek entzun eta gero beste egun baterako gelditu ginen. Egundua otsailaren 17 bat zan, arratsalde motza izaren dan horretakoa, eta bazkalondoan Atzoin Zabaleko baserrikeri joan ginen. Nik orduan ezagutu neban Atzoin Zabaleko gizona; Markinako matarifearen aita, baita handik aurrera ondo ezagutu be familia hori.

Nik badakit Presalderi kalte baino ez neutsala egiten, baina halan eta guztiz be iluntzerako amaitu genduan.

Presalde detaile guztiekaz geratzen zan gizon horreetakoa zan. Baserrira heldu orduko hasten zan esaten: "etxe honetako emakumea ganorazkoa izango da", eta nire harridura azaltzen neutson, zelan ekian oraindik heldu barik gagozela eta. Eta berak esaten eustan: "ez al zera konturatzen nolako baratza eta etxe ingurua dagoen?" Gehienetan igartzen eutson.

Hurrengoan esango eustan: "etxe honetako idiek bultza egiten dute", hanketan eukezan golpeei begiratu eta gero. Beti esaten eustan honelako detaileetaz konturatu behar nebala.

Zapatu baten etxera nentorrela be esan eustan ea Agustin Atxurre ezagutzen neban. Nik baietz, eta orduan ea ni joango nintzatekeen mandatu bat emotera esanez datorren astean joango ginela Amoroitor buztarria egitera. Hurrengo egunean jagi goizean eta alkilerreko bizikleta baten joan nintzan. Heldu nintzanean han hasi nintzan ate-joka eta emakume batek urten eustan. Ea Agustin etxean zan itaundu neutson, baina ha elizara joanda egoan. Mandatua itzi neutson emakumeari. Astelehenean Presaldek galdetu eustan ea Agustinegaz egon nintzan. Nik esan neutson zelan emakume batí emon neutson mandatua. Eta Presaldek ea ezkondua ala ezkongabea zan. Nik ez nekiala, zelan jakingo neban ba... "ez behintzat gonak gora jasotzen, ondo begiratu ezkerer han eramango zuen behatzean eraztuna" . . . erantzun eustan. Horrelakoa zan Presalde.

Behar horretan, gauza astro entzun eta ikusten dira, baina ez dot damurik honetan ibiltzeaz. Gehienbat Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Santanderren ibili naz. Askotan baserri batetik bestera alde handia izaten da. Nik danetarikoa topatu dot. Ohean izara bategaz bakarrik lo egin dot, baita izara barik be, baina beste hainbat lekutan erregeen gela baino ederrago eta garbiagoan. Gehienetan danak onak.

Lehenagoko amuma hareek baekien kristaua ondo tratatzen. Erropa bustiak bazenduz aldatzeko emon, baita lanazko galtzerdiak be. Jaten emoten be holakoak ziran; goizean lehenengo kafea gailetak, gero hamarretakoa, egun guztian ez ziran geratzen jaten emoten. Gauean lo egiteko gela onena guretzat izaten zan. Ama on asko dira munduan. Nik ez neban suerterik izan amagaz, hamazortzi urte nebazala hil zan eta.

Jatekoa ondo ipintzen daben ama asko dira Euskal Herrian. Nire esanak gitxi dira jende horrentzat:

*Gure aurreko amonak  
gugaz munduan egonak  
hainbat izardi bere denboran  
lanian emonak  
bardin ondorengo amak  
merezi dituzte famak  
bizirik geratzen zaretanoi  
nere partez zorionak (bis)*

Leku askotan ibili naz, beraz, buztarriak egiten. Horreetako leku bat Mendatako Iterixe baserria zan, oso ederra benetan. Nik entzunda daukadanez, laurogetazak hektarea daukoz. Hango pinadiak ez dauke azkenik. Bertako Antonio Esturo, hiru mutil, alaba bat eta bertako aittitte ezagutu nebazan. Ordurako itsututa egoan, baina entzumen ona eukan.

Buztarria amaitu nebanean Antoniori galdetu neutson ea etxera joateko nondik zan hobe. Honek esan eustan hobeto nebala Zugastietara joan eta handik Zornotzara trenez. Aittittek zeozer entzun eban, eta esan eustan hemendik Markinara joateko Balkon de Bizkaiara jo eta handik aurrera Markinara... Barrezka esan neutson: "arrua bat pasa pisatzen dabe erremintxa honeek eta ez al da larregi izango Mendatetik Markinara oinez joatea?" "Ai, ail!" -esan eban- "gu hainbeste aldiz joan ginen Bilboraino, egun guztia laixetan egin ondoren, asto biri ipini otzarak sagarrez beteta eta han joaten ginen Bilboko plazara". Orduan galdetu neutson ea zenbat diru ekartzen eban sagar guzti hareek saldu ondoren. "Ba, laurogei errial ekartzen baziran, pozik" -esan eustan.

Egia da denborak asko aldatu dirala, eta oraindino ez dakigu zer ikusi behar dogun.

## DABILENARI PASATZEN JAKOZ...

Honela kanpoan dabilenari kasu xebreak be gertatzen jakoz. Behin batean buztarri bat konpontzera joan nintzan baserri batera, eta amaitu nebanean bertako emakumeak esan eustan kopau bat egitera joateko. Sukaldean mahaia ipinita egoan, eta bertan alaba neure aurrean puntua egiten. Nik be zeozer esan behar eta hasi nintzan emakume hareek tentatzen, eta holan genbizala neure hankan bultzada bat sentitu neban, eta neure moduan: "baina neska honek zer pentsatzen ete dau?", eta barrero bultzadea hankan. Halako batean disimuluan atzera etzanda begiratu neban mahai azpira eta non ikusten dodan txakur handi bat neure hanka gainean. Pentsatu neban: "hau dok engainua".

*Ama alabak lanian  
eta ni jan-edanian  
kontu-kontari ibili nintzan  
nere afanian  
demoniuak danian  
horrela gabiltzarian  
txakur zahar batek buztargilia  
engainatu azkenian (bis).*

Beste batean baserri batetik deitu eusten eta han joan nintzan goizean goiza eta eguerdian amaitu nebenez, etxeko ugazabak esan eustan bertan geratzeko bazkaltzen. Amaitu eta gero agurtzean esan neutson ikusteko ea zelan ebizan, eta ezer bazan abisatzeko. "Bai, bai, ez da milagro izango buztarria ondo ez egitea, Jaungoikoak be egin zuan mundua baina ez zuan ondo egin, ze harrezkero beti dabiz arregluan eta".

Bidean pentsatzen etorri nintzan harek esan ebana. Ha Mañukortaren amaren osaba zan. Holako urteera asko eukazan.

Lehen ohitura izaten zan baserri aurrean buztarria egitea. Atarían ota berdea botatzen zan, eta gero usteltzen zanean pilo bat egin eta simaur orde z soluari botatzen jakon.

Etxekoandrea askan egoan erropak garbitzen eta gizona nire ondoan; holan hizketan genbizela esan eban: "nabuek loran jazak eta laster pazkuzkue egin beharko da". Eta emakumeak dino: "bai, egin beharko da; abadeak egun horreetan makina bat kontu jakingo dabe behintzat; nahiko egiten dabe konfesonarioan entzuten dabezan gauzakin aguantatzea. Urten eta bertan ekitzeke be nahiko motibo eukitzen dabe". Ikustekoa zan haren gizona ota berdetzan garra-garraka, bueltaka, barrez errementatzen, neuk be gozatu ederra hartu neban harei begira eta hareek entzuten.

Beste batean be heldu nintzan baserri batera eta ate ondoan ume bat egoan, aitagatik itaundu neutson eta esan eustan "ohera joan da amarekin".

- "Eta aitita"

- "Aitita bestekora joan da narrutara".

- "Bueno, itxaron egingo deusat".

Halako batean han dator aitita narru handi bat lepoan hartuta. Pentsatu neban: ze gauza ederra gaitzik ez dauan ume baten erantzuna.

Beste behin baserri batera joateko abisua hartuta nengoan eta hara joateko taberna baten ondok pasatu behar neban, eta han egon nintzan kontuak esaten, ba ni taberna haretan askotan egona naz, baita bertsotan be. Egin bisita eta han segitu neban baserriruntz. Eguerdi-aurrea zan heldu nintzanean eta han egozan amuma zahar bat eta morroia, baina mutila falta. Amumak estututa elan eustan: "-gure mutila ez dago, atzo min hartuta Eibarren dago ta"- eta esan neutson: "-zu egon lasai, auzoko baserri batera be joan behar dot eta".

Orduan morroiak esan eban: "ez, harek esan dau ekiteko buztarria egiten eta diru bat eroateko berari, eta amumak harrituta: "baina dirua berak eroan badau!"; eta morroiak: "ba niri hori esan deust". Horretan gabizela nik joatea erabagi neban eta euria hasi zan. Amumak aterkin barri bat emon nahi eustan, baina ez neban hartu, ze handik beste baserrira lau pausu egozan.

Dirua eta aterkina hartuta han joan zan morroia... gaur arte!. Ez aterkinik, ez dirurik, ez morroirik!.

Beste baserri batera be joan ei zan esaten buztarrigilea etorri dala eta jabea ez egoanez ea dirua itzi leiken, baina baserritarrak susmo txarra hartu eta ez eutson emon. Ni egon nintzan tabernara be joan ei zan bardin esaten eta eskerrak tabernariak esan eutson: "buztarrigilea lehen be hemen egon da eta esan beheruntz datorrenean pasatzeko eta nik ordainduko deusodala".

Holako morroi listuak honela ibiltzen dira eta kontuz!.

*Horrelako kristauak  
beti dabiltza zai  
lana egin behar danian  
hartuko dute jai  
asko harrapatzia  
gustatzejako bai  
horrelako morroirik  
etxian ez det nahi.*

Denbora hareetan be probalari onak baziran, eta nahiz eta danekin gogoratu ez, uste dot hau parkatuko deustazuela, hona hemen batzuen izenak: Santi Morga, Urtain, Burgo, Itxerixe, Kakatza, Basarrate, Zapatari, Ilaixpe, Asabel, Espille, Itxurran, Iketza, Berriatuko Perran, Zabaleta eta Illerraga Azkoitikoak, Laiñe Aurrekoetxea anaiak, Gondra, Basañez, eta abar... Orduan idiekin behar gehiago izaten zan eta errezagoa zan hareek preparatzea. Orain asko kostatzen da idia ondo preparatzea, baina orain be banakak ikusten dira onak. Sakonetako ixkuak erakutsi eban bere burua. Manolo Gonzalez santanderrekoak be izan ebazan idi onak. Honen etxean hogeita hamaika idi batera ikusita nago. Laredon be badago idizale amorratua, behiak ekarri eta hareen umeekin idiak egiten dabezana. Hau Vitoriano Hernandez Memendi da. Negozioetan ibiltzen dan gizona, baina idiekin gozatzen dau gehien.

Lehengo batean, Gernikako zepilladorie (idizale amorratua) eta ni, bonbero baten baserrira joan ginen idiak ikustera, eta zepiladoreak esan eutson:

- "Lehen duranguak daukoazala eta honeek kendu eta gaztañauak hartzera hoiala entzun joat".

- "Bai, ni beti nabil moden atzetik, gaztea eta argala nintzanean neska danak ibiltzen ziran mutil lodien atzetik, eta ni loditu nintzanean argalen moda etorri zan".

Buztarrigileak probalariekaz eta gustatzen ez jakonagaz, danekaz ibili behar izaten dau.

## **SOLLUBEPEAN PARAJE EDERRAK ETA LAGUN ONAK**

Nik hogeita hamar urte inguru nituanean, Muxika eta Bermeo artean makina bat idi-pareja eder baegoan. Hau Errigoiti, Metxike, Lumo parajeen zan. Hortik Bermeo aldera bazan Paresi deitzen jakon auzo bat, Makulueta be hor inguruan dago, ondo ezagutu neban bertako familia, oso jatorrak eta langileak. Lehengo zepatik dator lanerako gogo hori, azkenengo egon nintzanean ehun eta laurogei buru eukezan, behi eta txahal, bata bestea baino ederragoak...

Ganadua gustatzen jakonak, hara joan behar dau zelan gobernatzen dan eta zelakoak dagozan ikustera.

Bi harategi daukez Gernikan, anai-arreba danak bertan egiten dabe beharra, baserrian eta harategian. Horren aita nire kintoa zan, hirurogeita hamabi izango ebazan bizi izan balitz; azkenean hanka moztuta karroan ibiltzen zan. Aita hil eta laster ama be hil zan.

Bermeo gainean dago Almonike deitzen dan auzo bat; harek probalekua dauko eta urtero egiten dabez probak. Horra joan ezker, Sollube taberna zan gure ostatu edo egonlekua; tabernaria, Pedro. Orain beste jende bat ikusten da taberna horretan. Bermeotik Sollube partera badira Alegria anaiak, Jaime eta Benjamin, probazaleak eta idi onak izan ohi dabez. Inoiz haren semeekin egoten naz eta beharrean gogor saiatzen dira.

Bermeo nire gogoko herria da, herri konpletoa da hori: baserriak, portua, autobusak eta trena eta abar. Busturin be baditut lehengusuak emaztearen partetik; hondartza ondoan bizi dira. Hareek be Sakonetarrak dira. Taberna bi daukeez, ez edozelakoak; askotan han eguna gustura pasatzen dogu Unamuno anaiekin.

Busturitik gora joanda Erregia deitzen deutsen tipo bat bizi zan, Zabale baserrian. Orain bere semea bizi da baserrian eta hareri be Erregia deitzen deutse. Ni buztarriak egitera Gernika aldera honek deituta joan nintzan lehenengoz. Tiburtzio eta Migel Erregienien hasi nintzan, hor inguruan lehenak.

Mendigain horretan baserri asko eta onak egozan. Oraindik be baserri batzuk badagoz eta seinale ona da hori. Behi-granja bat be badago ganadu on eta askogaz. Handik eta Sollubera bide barria eginda dago. Hortik Bermeora eta Gernikara pasatu leiteke.

Ni lehenengoz horra joan nintzanean Erregia zaldi gainean eta ni oinez, basak astinduz gau ilunean, ordu erdi baino gehiago egingo genduan; nik behintzat izerdi pilo bat bota neban. Arrua bat pisatzen eben erremintak, eta sekula pasatu bako bidean, zaldiari segitzea ez da erreza izaten. Orduan hanka onak neukazan eta eskerrak horri. Ailegatu ginen etxera eta etxeko andra harek afari ederra emon euskun; orduan antz emon neutson etxe ona izango zala. Gauean bertan lo egin eta goizean jagi nintzanean galdetu neutson buztarri gaiagaitik; eta esan eustan, "kerixa arbola hau botako dogu"; ni bildur nintzan apurtu egingo zala, ez neban sekula holako egurragaz egin eta..., baina esan eustan ez eutsola ardura apurtzen bazan, barri bat egingo genduala.

Idiak eta egurra ikusi genduzan eta esan eustan: "orain goazen armozatzera". Nik sekula ez neban jan halako armozurik. Ha zan gustuko janaria. Suteko hauspean erretako makilaua izpi-izpi egin eta orio gordina gaintetik bota eta prest. Handik jaiki eta gustura ekin neutson aizkoran. Handik atzera ez neban hotzik pasatu. Etxe horretan sukalde beroa egoten zan; beheko suak ederto tiratzen eban; han ez zan lee askorik izaten beheko sua egonagaitik.

Handik Tiburtzion etxera pasa nintzan. Baserria bizitza bikoia da, bere izenaz ez naz gogoratzen. Alde batean Tiburtzio bizi zan eta bestean Olanua esaten eutsena. Tiburtzio honen etxean idi gorriak egozan. Denbora haretan famelia ederra eukan. Orain etxe hori hustua dago. Hango seme bat bertako auzoko neska bategaz ezkondu zan.

Arteaga aldetik be ibiltzen nintzan, Txertudin eta abar. Handik nentorrela ilunabarrean motor bat susmatu neban atzetik eta halako baten nire parean gelditu zan eta galdetu eustan ea nora ninoian, "Ba, Gernikara, bihar Muxikara joateko, eta nor zara zu?". "Ni Pedro Ajuria". Nik ez neban ezagutzen, baina harek bai ni. "Gure etxean pasatuko dozu gaua", egin eustan gonbitea. Etxea taberna be bazan, eta baita gau ederra pasatu be. Afaltzen gengozala Balentin Enbeita etorri zan, eta afalondoan bai bertso-saio ederra egin be.

Orduan gazte asko be ezagutu nebazan: Ireneo, Pedroren semea, Sarduitarrak, Pedroren alaba eta bere lehengusina bat. Ahoa zabalik egoten nintzan hareei entzuten.

Handik aurrera gustura joaten nintzan Ariatza aldera, askotan neu konturatu barik be. Muxika alde horretan be jende on asko dago. Lopategi be hor ezagutu neban. Geroztik txapelketetan eta herriz herri be abestu dogu alkarregaz.

Azpillagak deitu eustan berak ezin ebala joan eta ea joango nintzatekeen Lopategigaz Antzuolara. Nik baietz agindu neutson. Iruzubietan itxaron neutson, eta han etorri zan Lopategi motorragaz. Jarri biok motorrean eta han joan ginen Antzuolara. Meza ostean saio bat eta arratsaldean beste bat egin genduan. Azkenean galdetu euskuen zenbat zan kontua. Bakoitzak orduan 500 pezeta kobratzen eban. Ba, mila bana pezeta emon euskuen eta gu oso gustura bueltatu ginen etxera.

## BUZTARRIGINAREN OFIZIOAZ

Ni hasi nintzan denboran, buztarriak baserrira joan eta bertan egiten ziran. Han izaten eben materiala hori egiteko. Orain ez da holan; neurriak hartzen dodaz, etxean moldatu eta baserrian amaitu. Pagoa be neuk preparatu behar izaten dot. Lehenengo astilatu egin behar da. Horretarako hiru bat burdin-ziri, punta partetik sartu eta astilatzen da, edo bestela motozerra onagaz. Honetan Felipe Idurri, karreterua zana, oso ona da, ederto astilatzen ditu.

Erlatxeko baso barrenean, legorpe edo txabola bat dogu, nire anaia Isidrok eta biok egindakoa. Ha egiten nire semeak, Antonio Ibarluzeak, iloba Eusebiok eta Erlatx baserriko ilobak lagundu euskuen. Legorpean pozu bat dogu, eta han sartuta edukitzen doguz buztarriak egiteko egurrak. Handik behar dogunean komeni jakun egurra ataratzen dogu.

Hor esaten dodan lez, pagoa lau zatitan ebaki behar da, azalagaz gainera eta orduan triangulu lez geratzen da. Komeni diran neurriak honeek dira: aurre aldean alturan hogeita zortzi zentimetro; horreek hamabi ontza dira. Atzeko aldetik -lepatokia esaten jako- hogeita hamar zentimetro, hamahiru ontza. Gaineko aldean azal aldetik hogeita hamabi zentimetro, hamalau ontza inguru. Lehenengo ertzak ataratzen dira, eta ondoren adartatea eta bueltak, eta azkenengoz lepatokiak. Hau eginez aizkoragaz ozpal handiak kentzen dira eta azkenean trabesagaz garbitzen da, buztarria tamainuan ipini arte. Hau egin ondoren txintxiagaz pasatzen dira otxanak eta ajustatu. Lehenagoko aittittak esaten eban lez, sobrantiak kendu ezkeru buztarria eginda dago.

Arretxinagan Akeliño deitzen jakon baserri bat dago; behin nire maisu Presalde etorri ei zan buztarri bat egitera. Hau egiten ebilela, Markinako Gantxegi beterinarioa heldu ei zan ganadu batengana, eta Presalde han ikustean esan ei eutson: "gazte, ofizio hori ikastea pentsatu zendunean kastigu ederra emon zeuntsan zeure buruari", hori esan eta han sarta ei zan baserri barrura. Kanporatzean barrero Presalderengana hurbildu eta esan eutson: "ni medikua eta beterinarioa naz, zer dala uste dozu arriskutsuagoa?". Eta Presaldek "medikuarena izango da, esaten dabenez pertsonak arima dugu, animaliek ez dutena". Eta Gantxegik barriz "medikuaren deskuidoa zaila dok azaltzea, ze noiz edo noiz egiten da autopsia baina kasu gitxi dira. Barriz, beterinarioari baserritarrak askotan esaten deutso, ikusi egin behar dogula zergaitik hil dan, trabau bat, edo kutsatuta dagoen. Orduan nire deskuidoa bala, azaldu egiten da. Zure ofizioa be azaltzekoa da. Erretratua balitz ederto, baina baserritarrak esaten deutsunean, probatu egin behar dogu, orduan txarto badago, han azaltzen da zure deskuidoa".

Presalde pentsatzen geratu zan zelako egia esan eutson, izan be ofizio batzuetan errezago eta gehiago azaltzen dira erruak.

Zenbat gauza agertuko ez ete ziran politika munduan be, gure ofizioa bezain garbia edo azalkorra balitz.

## BERTSOTAN HARA ETA HONA

Lehen esan dodan lez, bertsozaletasuna txikitatik izan dot. Txikitako kontu asko gogoan dodaz, zelan ama zanak azken juizioko bertso zaharrak abesten ebazan. Aitak be bertsotan egiten eban gabonetan, eta gari-jotea zanean.

Gogoratzen naz Esteban nire anaia be famatua zala bertsotan, baita nire lehengusu Zumiña baserrikoa be. Alkarregaz bertsotan egiten genduan tabernetan. Uztailaren lehenengo domekan nire auzoko jaiak ospatzen dira, San Martin jaiak. Nire lehenengo saioa han plazan egin neban. Markinako jaietan be deitu eusten eta han izan ginen ahaleginak egiten nire lehengusua eta biok. Beste baten San Isidro jaietan abestu genduan Uztaipiden lehengusuak, Hernaniko Paulo Txikiak, Beasarte Astigarraga aldekoak, Manuel Urangak, Bautista Oñaederrak eta neuk.

Bizkaiko Txapelketetan be parte hartu dot. Lehenbizikoa Markinan, lehenengo Azpillaga geratu zan, ni bigarren. Hurrengo urtean Mugartegi lehenen eta ni bigarren. Hirugarren urtean ni lehenen eta Arregi bigarren. Ondarroan egin zanean lehenen Mugartegi, bigarren Azpillaga eta ni hirugarren. Beste baten Ondarroan jialdi bat jarri eben, nahi ebanak parte hartzeko; hogeita bost bat apuntatu ginen. Juradoa eliminatzen joan zan eta hiru gelditu ginen: Txomin Garmendia, Manuel Uranga eta neu. Azkenean puntu bana ipini euskuen. Hauxe niri jarritako puntua:

*"Andriakin zer moduz  
konpondutzen zera?"*

Eta nik botatakoa:

*"Igarriko didazu  
gutxi gora behera  
zazpi urte haurrik gabe  
egonak baigera  
guraso izan nahi degu  
hemendik aurrera"*

Orduan nire emaztea haurdun egoan. Lehenengo saria neuk hartu neban, bigarrena Txomin Garmendiak eta hirugarrena Manuel Urangak.

Beste baten Berrizen ipini ginduzen binaka, Azpillaga eta ni eta beste lau edo bost pareja. Azpillaga eta ni geratu ginen lehenengoak.

Beste baten Loiola irratitik saioa egin genduan, baina ez nintzan ondo ibili; norberak igartzen deutso gustura geratzen dan ala ez. Sei bertsolaritatik Gorrotxategi geratu zan lehenen eta ni bosgarren. Uste dot nahiko suerte eduki dodala txapelketetan nahiz eta lehenengo gitxitan geratu. Bigarren edo hirugarren, hor ibiltzen nintzan.

Herriz herri be ibilaldi asko egin dot, baina orduko bertso saioak ez ziran oraingoak lez. Jeneralean goizeko meza ondoren saio bat eta bazkaldu ostean luzaroan jarduten zan. Behin batean Mugartegik eta biok hiru egunetan jardun genduan etxera etorri barik. Lehenengo Aginagan, gero handik Eskoriatzara eta handik Etxebarrira.

Ondarroara heldu ginenean Mugartegiri esan neutson: "oraintxe nahikoa egin dot; barriro deitu ezkerero, ez nintzake joango inora". "Ni bai", esan eustan Mugartegik. "Ni baino hobeto hago orduan", esan neutson.

## **PASADIZO XELEBREAK BERTSOAK TARTEKO**

Holako lekuetan jende xelebrea be ikusten da. Behin batean Itziarren, Zubeltzuren omenaldian Baserri, Uztapide eta beste bertsolari mordo batek meza ondoren abestu eben. Taberna aurrean jarrileku bat egoan eta han jarri zan Baserri. Eta esan neutson: "zer, Baserri, kantsazioa ala gosia?". "Gosia?, nik pagatu egingo nuke". Eta Uztapidek albotik "-ba, guk kentzia pagatzen dugu". Honelako urteerak baebazan Uztapidek.

Nire arreba Jeronimak baserri-taberna bat eukan eta hara joan ginen bertsotan egitera Uztapide eta biok. Pentsatu genduan Mutrikuko taberna batean salda bat hartzea baserrira joan orduko. Sartu ginen tabernara eta bertako emakumeak "-itxita dago"- esan euskun. "Itxita egon balitz, ez ginen sartuko"- esan eutson Uztapidek, eta kanpora urten genduan. Taxista batek eroan ginduzan Isasi mendira, eta han hartu genduan salda beroa, baita beranduago bazkaldu be, eta azkenean bertsotan amaitu genduan.

Saioan genbizela han azaldu zan Pello izeneko tipo bat. Tabernako ate kanpoan hasi zan bertsotan eta Uztapidek esan eustan: "mesedez, egon ixilik pixka baten, nik ixilduko det hori laister", eta ni bai gustara be, dozena-erdi bana abestu ebezan eta. Pello horrek bertso zahar asko bota ebazan edo ez dakit berak asmatutakoak baziran, baina oso bertso ederrak. Uztapide fenomeno egon zan; Pellok segitu baleutso bertsotan, harek baeukan almazena beste hogeita lau ordurako be. Sasoi haretan Uztapide zer zan esaterik ez dago.

Bertsoak ebazan kantoiak ondo tapatuta geratzen dirala esan ei eban Txirritak. Uztapide be harekin ibili zan, eta nik Txirritak esandakoa sinisten dot.

Neuk lez edo hobeto jakingo dozue Txirritaren liburuak irakurri dozuezanok zer izan zan Txirrita. Bertsolari handi bat, gizonez be pisu handikoa. Ehun eta berrogeita hamabost kilo pisatzen ei ebazan. Behin esan eutson bere koinatuak ea lagunduko eutson burdia mandixora sartzen. Eta Txirritak erantzun eutson: "oraintxe joango da burdia aurrera eta mundua atzera".

Beste batean Gaztelu bertsolariarengana hurbildu zan. Honek buruan eukan txapelak goiko txistena falta eban, eta Txirritak esan eutson: "Juan Bautista, txapela dezu modakoa", eta Gazteluren erantzuna, "etxian utzi diat hortik gorakoa".

Etxebarri gure auzo herri bat da; bertan Patxi Aizte deitzen jakon gizon bat bizi zan. Bertsotan egitea asko gustatzen jakon, ehiztari amorratua be bazan. Auzoko mutil gazteak inozentada bat egitea pentsatu eban. Konejonarrua lastoz bete eta etxe-buruan ipini eban zuhaitz baten azpian. Bedako denporea zan eta edurra egiten eban. Patxik ikusi ebanean, tiro bat bota eta han joan zan aidean, belarrietatik kolpe eutson eta baserrira sartu zan. Gazteak Etxebarri guztian zabaldu eban euren trastada.

Herriko parrokoa be ehiztari amorratua zan; hau eta beste gizon asko egozan domeka goizean eleizpean itxaroten, Patxi noiz etorriko adarra joteko. Halako batean han dator gure Patxi:

- "Egunon, Jaunak".

- "Baita zeuri be. Baina Patxi, zeu zaren ehiztariak bedako denboran kasan?" -esan eutson abadeak.

- "Bai, Jaune, narru honek engainatzen ez dabenik ez da eta neu be honetxek engainatu ninduen".

## TXIRRITARENAK

Txirrita hargintzan ei ebilen bere herritik kanpora. Orduan baserri-taberna batean egoan apopilo. Etxe horretako andrazkoa pixka bat urteetan aurrera joiana zan, eta gauean afaltzeko taloak egiten ei ebazan. Taloak erretzen suaren aurrean segituan loak hartzen ei eban eta askotan nahiko talo jan barik Txirritak eta bere lagunak lotara joan behar izaten eban. Halako batean Txirritak dino: "bihar atso demonio hori esnatuko diat".

Hurrengo egunean mutil gazte biri esan ei eutsen: "biliar etorri botila bete ardo edanez, broma bat egin behar degu eta".

Hurrengo iluntzean edan botila bat edo bi eta Txirritak esan ei eutsen: "amona hori laister loak hartuko du, eta zuek tximiniatik behera bota soka, nik lotuko diot hankatik eta tenk egindakoan hiru bat aldiz gora eta behera ibill behar dugu". Amona zaharra han joan tximinian gora eta orduan Txirritak: "nora zoaz Josepa?". Kolpetzen deutso eta besteak gorantz egiten hiru bider. Halako batean Txirritak soltatu dau soka eta amumak eskerrak emoten pentsatuz sorginak edo demonioak nahi ebela eroan... Txirritak esan eutson: "bai onetik libratu zera, bestela hor joango zinan hodeien gainetik eta sasien azpitik". Taloak erretzen ez ei eban gehiago lorik egin.

Beste batean han egozan Txirrita, bere arreba eta gurasoak. Amak meriendatzeko sei sardina ekarri ebazan mahaira, eta honela partitu: bat Txirritarentzat, beste bat arrebari eta bina gurasoentzat. Orduan Txirritak bertso hau kantatu ei eutson.

*Laurontzat dauzkagu  
hemen sei sardina  
baina partizua  
ez da ondo egina  
seme-alabei bana  
aita ta amak bina  
zergatik ez deu jaten  
bat eta erdina.*

## BERTSOLARI-EGUNA MARKINAN

Bertsolari gaiak gabizela aitatu behar Francoren denbora. Orduan bildur izaten ginen egiak esateko; han egoten nintzan zelan moldatu bertsoa, jendeari ulertu eragiteko emon nahi neban mezua. Askotan egoten nintzan aita Migel Marigaz -hau karmeldarra da- kontuak esaten. Ha Markinako komentuan egoan eta bertsozale amorratua zan. Behin esan eustan berak esango eutsola Jose Agirreri eta bazkari bat egin behar genduala euren komentuan. Ni, Mugartegi, Arregi eta Azpillagari esateko geratu nintzan.



Esandako modura han alkartu ginen danok eta bai bazkari edema jan be. Aita Miguel Marik, bazkalondoan jaurtitako bertsoak grabatu egin ebazan, eta Baserriri bialdu eutsozan, gonbidatuz hurrengo urtean bera be etortzeko. Horrela hasi zan Baserri gugaz egun horretan alkartzen. Pentsatu genduan bazkaria urtero, beti egun bardinean mantentzea, eta Pilarika eguna ipini genduan. Handik aurrera urte askotan ospatu zan Bertsolari-Egun hau.

Lehenengo bertsolari batek bertso batzuk botatzen ebazan meza denboran. Eliza bete-beterik egoten zan. Meza ostean zeozer jan, eta karmeldarren batek hitzaldia emoten eban. Honen ostean bazkari ederra, sabelak bete eta akordatzan naz zelan Baserrik be egin eban hitzaldi ederra. Handik aurrera bertsoan txandarik hartu ezinda... Makina bat bertso abesten zan arratsalde horretan, txiste eta kantu...

Handik pasatu bako bertsolari asko ez zan izango; bertsolariak be asko izaten ziran, azkenerako danentzako tokirik ez zan izaten. Egun ederra pasatu ondoren Gernikako arbola danon artean abestu, eskuak alkarri emon eta hurrengora arte esanda geratzen ginen pozik. Halako lagunarteak edozeinentzat be ez dauko kalterik.

*Goguan daukat Pilariketan  
sari egiten genduna  
kontzientzia garbitu eta  
kendu kopeta iluna  
geure burua bezela maite  
genduen urko laguna  
bertso ta ipuin, sermoi ta kantu  
pasatzen gendun eguna  
Baserri hau da urte haietan  
zuk erakutsi zenduna.*

## ZENSURAREN GORA-BEHERAK

Leku guztietan lez, bertsolaritzan be atsekabeak izaten dira, ze ez dago arantza bako larrosarik, batez be Francoren denboran. Egun baten Loiuko ermintta batera joateko deitu euskuen Mugartegi, Arregi, Loiuko Kastrejana eta neuri. Esan zan lez, goizean hartu autobusa eta han joan ginen lehenengo Bilbora eta handik Loiura. Ohitura dan legez, meza osterako heldu ginen, eta han azaldu zan tipo bat, hango sekretarioa edo holakoren bat zala azalduz. Esan euskun gure informazioa jakitera Markinaraino etorri zala eta pentsatu ebela guri ez iztea abesten. Hori izan zan gure egun hartako saria.

Beste baten be txapelketa bat jarriko zala Pilarika egunean Durangon esan euskuen, eta nahi ebanak apuntatzeko. Ni ordurako aspertu samar nengoen txapelketekaz, eta bazkalondoan han ari ginen batzuk joan egin behar zala, eta beste batzuk ezetz. Domingo Iriondok esan eustan ni joaten ez banintz, bera be ez joiala. Honela apuntatu ginen biok. Hurrengo egunean han ziran guardia zibilak etxean, ni momentu horretan ez nengoen, eta esan eutsoen nire emazteari kuartelean presentatzeko etortzen nintzanean. Han joan nintzan eta esan neutson atean egoanari hara joateko abisua hartu nebala. Harek erantzun eustan momentu horretan ez egoala sarjentua. Ni buelta emon eta etxera etorri nintzan, eta gaur arte. Txapelketa hori gero be ez zan egin, ez dakigu zergaitik.

## MARKINAKO BERTSO-ESKOLAN

Lehenengo bertsolari-eskola Patxi Goikoleak eta haren lagunak sortu eben. Orduan jendea niri burua berotzen hasi zan, nik be Markinan bertsolari-eskola bat sortu nengian.

Pentsatu neban lagun bat behar nebala eta horrela esan neutson Justo Zabalarri; harek baietz esan eustan, eta karmeldarren eskolan hasi ginen eskola emoten. Astean ordu bi inguru pasatzen genduzan Justok eta biok umeekin. Berak asko balio dau umeekin tratatzeko. Zenbat barre egiten genduan umeen urteerekin; oso-osokoak izaten dira; haren zentzuak ez dauko txarrik. Ni askotan ezin izaten nintzan joan beste behar batzuekaitik, baina Justo oso ondo konpontzen zan ni barik. Gero Azkoitira ezkondu zan eta handik lasterrera hasi zan Lopategi herriko eskoletan bertso-saioak emoten. Gaur egun be eskola horretan holako saioak emoten dabez.

Lea-Artibain jarri ebezanean idatzitako bertso sariak gugaz ibili zan mutiko batek irabazi eban. Hau Aitor Elexpuru izan zan. Gaia Markinako Frontoiarri buruz zan.

Neskak be baziran ondo moldatzen ziranak. Guk honegaz ez geunkan irabazirik, baina bai poza zelan umeak aurrera jarraitzen eben ikusirik.

## **SANTA AGEDAKO KOPLLEN OHITURA**

Gure denboran Santa Ageda abesteko ohitura handia egoan. Gogoratzen naz gure paraje honetara morroi asko etortzen zala, bai bizkaitarrak eta baita giputzak be. Barinagan alkartzen ginen. Lehenengo erromeria apur bat alaitzeko ardua eta limonada edanez. Gogoratzen naz urte batean ezin nebala joan, ze anaiekaz behar bat egin behar neban. Halako batean han dator kuadrillako mutil bat nire etxera esanez ea eurekin joango nintzan abestera, ze Santa Ageda goizean koplariak atzera egin ei eutsen. "Ez dau gure kontura barrerik egingo, ikusi dagiala bera barik be bagarela kapaz. Etortzen bazara hamabost ogerleko emongo deutsuguz" -esan eustan. Orduan nik anaiari esan neutson eta berak joateko esan eustan, ze eurekin joanda ez nebala horrenbeste atarako. Badakizue zer zan egunean hamar errial irabazten zan garaian hamabost ogerleko irabaztea?!.

Pozik joan nintzan, hareek aspertu arte, goizeko lauretan kantatu genduan azkena.

Handik aurrera be makina bat urtean ibili izan naz Santa Ageda eskean, bai Ondarroan, Berritxun, Markinan, Etxebarrin, eta Barinaga bueltan.

Baserrian ohitura izaten zan etxean egozan pertsona danak koplaztea, etxeko nagusia, etxeko andrea, hurrengo zaldunak eta danak. Kalean errezago ibiltzen da koplaria.

Urte mordo baten kalean ibili ginen "Zerutxu" ikastolaren izenean. Han batzen genduan dirua Markinako ospitalerako eta ikastolarentzako zan.

*-Santa Ageda eguna da ta  
eizue zuen laguntza  
Zerutxu eta ospitalari  
dirua batzen gabiltza.*

*-Joan dan urteko zuen laguntza  
eskertzera gatoz aurten  
mundu guztia jakinda dago  
zer ondo porta zinaten.*

*-Kale hontako pertsonak dira  
dirua emoten onak  
enteratuta geratzen dira  
ez jakinian daudenak.*

*-Santa Ageda jaiua zela  
Italiatik urrian  
guk Sizilia deitzen dotsagun  
han dagon isla batian*

*-Gorputzeko haragiak eten  
eta bularrak ebaki  
harek zer penak pasa zituan  
gure Jaungoikoak daki*

*-Bularrak ebaki eta gero*

*txapa goriaz erretan  
pentsau zer penak pasau zituan  
etsaien hatzapparretan*

*-Santa Ageda beti egon zan  
tinko ta sendo fedetik  
Kintiano horrek nahi zuan baina  
etzan mudatu beretik.*

*-Txingar gainetik espetxeratu  
hain egoera larrian  
azken arnasak eman zituan  
Kataniako lurrian.*

## **MARKINAKO KIROL GIROAZ**

Markina aldean etxe-torre ugari doguz; horreetariko bat Anton Totorikaguenarena da, famatuago "Lehoia" izenagaz. Baserriak Ugarte dauko izena, eta bera be hor jaioa da. Makina bat proba eginiko gizona da. Berrogei pareja probarako badagoz, hogeitamasei Antonek probatzen ebazan. Egun batzuetan proba bat baino gehiago jokatzen eban.

Gizon honen jateko gogoia eta agoantea idiak baino gehiago izan da. Txuleta bat jandakoan etortzen jakon gogoia bazkaltzeko. Probetarako afanetik kanpo be, esnerako behiak be badaukoz eta kaleko jendeari saltzen deutso bere baserrian. Soloan beharra egiteko be ondo preparatuta dago, bere tresna eta guzti. Gehienbat indaba saltzen dau kanpora.

Anton gizon-proban gazterik hasi zan. Garai baten kontrariorik barik egon zan. Baeukan baita asto-proban egiteko "Napoleon" deitzen eutson asto bat be. Honegaz joko asko irabazi eban, hamasei edo gehiago. Orduan Idurri bere laguna ibili eban itzain. Gero idiekaz hasi zan atze-itzain goraka, Atxuri aurretik eta Anton atzetik. Aurre-itzain be makina bat bider egin dau. Gizon ugari ibili da Antonegaz proba munduan. Horreetako batzuk honeek dira: Eugenio Antxia, Angel Arriola, Zabaleta Txikia, Iketza, Agustín Berriatukoa eta abar... Idi jabeekaz be askotan ibili behar izan eban.

*Trofeoz beterikan  
asaren baldia  
hara luzatutzen du  
beraren begia*

*hutsak edo betiak  
badago aldia  
Anton sekula ez da  
hutsaren zalia.*

Markinak beste gizon ospetsu ugari izan ditu. Pelotari famatuak badira Markinan eta Etxebarri inguruan, makina bat mutil dabil zesta-puntan. Famatua zan Erdotza Txikia eta haren anaia, baita Kazalis anaiak be. Nik ez nebazan honeek ezagutu, baina nire aitak asko famatzen ebazan. Neuk be asko eta onak ezagutu dodaz: Txutxo, Ibarluzea, Kareaga, Martzelino, Mugerza anaiak, honeen etxetik hamar metrora jaiotako Larrea anaiak, Orbea anaiak, Azpiri, Laka, Ondarres, Bengoa, Goiogana eta zer esanik ez Bolibarko Txikito famatua.

## **MARKINA INGURUKO PASADIZO ETA PERTSONAIK**

Txapasta eta Mariano eskuzko pelotariak eta alkarren lagun handiak ziran. Beste askori lez harei gustatzen ei jakezan traguak gauean eta nahikoa edandakoan hasten ei ziran alkarri esaten: "hi, hau ez dok gizonen martxie, bihar goizean mendira joan behan joagu perretxikutara".

Ipintzen ei eben ordua halako lekuan juntatzeko baina goiza heltzen zanean ez bata ez bestea ez ei ziran agertzen. Goizean lo, eta hurrengo egunean bardin.

Egun baten Gernikan jarri ei eutsen partidua, eta han doaz kotxez; halako batean gurpilak urten eta han doa mendian behera. Hasi dira gurpila topatzen eta ezin bilatu. Halako batean esaten deutso batak besteari: "hi, onak gazak gu perretxikutara joateko, gurpilik ezin juau topau eta". Honelako esaerak izaten ebezan.

Beste baten etxera etozela trenaren geltokian jendea zain eta norbaitek galdetu eutsen, "zer egin dozue partiduan?", eta hareek, "hogetabixen itxi jitzuan".

Markinan izan doguz itsuak be gauza diranak. Markinara etorri ei zan kanpotik gizon bat, eta esan ei eutson bertoko gizon bati Arnobatera joan behar ebala baina ez ekiala biderik. Markinar honek esan eutson berak ezin eutsola lagundu, baina ipiniko deusut lagun bat bidea erakusteko, eta han etorri zan mutil itu bategaz. Gizon honek ez eutson esan, baina burlatzat hartu eban.

Orain kaminoa eginda dago baina orduan mendiz mendi joan behar izaten zan eta itsuak zuzen-zuzen eroan eban.

Ailegatu ziranean gizon honek esan ei eutson, "hartu pezeta bat honaino laguntzeagatik", eta itsuak, "hau ez da pezetie, pezeta bikue baino". Ordurako diru asko izango zan. Nire aitak be hori entzunda eukan. Orain biziko balitz ehun eta hogeitaz urte izango ebazan.

Arnobatera hamalau edo hamabost kilometro egongo dira. Itsu harek atajuak jakingo ebazan baina halan eta guztiz be bederatzi edo hamar kilometro egingo ebezan. Ez zan estreinakua izango baserri horretara joatea.

Baserri hau beti izan da ospetsua. Lehen behintzat hor egoan Bizkaia eta Gipuzkoako mugarrria. Baserri horretakoa sendagile ospetsua zan hazur kontuan. Oraindik be segitzen dabe atzetik datozenak.

Lehen be jardun dot itsuaren kontuak esaten baina harrezkero, neure denboran ezagutu dot gizon aupagarria, Santi.

Egunkaria saltzen atara eban bere bizimodua. Orain bizi izan balitz laurogeita lau urte izango ebazan. Goizean goizetik jaikitzen zan, eta buelta handiak egiten ebazan, egunero aterik ate eguerdi artean.

Goizalde batean gure herriko parroko fauna ei joian gaixorik egoan batek abisatuta, eta gure Santi han ei egoan kale ertzean txoriarentzat kaiola bat egiten. Parroko jaunak esan eutson, "zertan ari zara ordu hauetan ilunetan?". Eta Santik, "niretzako ordu danak dira ilunak", eta orduan konturatu ei zan nogaz egoan berbetan. Santik ez eban behar argirik kaiola egiteko. Esaten eban berari sekula ez jakola esnerik irakin eta jausi.

Beste norbaitek hamar ogerlekoko faltsua sartu ei eutson, eta Santik esaten eban: nigana etorriko balitz ezagutuko neuke nor izan zan. Baziran Ameriketara joan eta urte asko egin ondoren etorri eta Santik berban ezagutuak.

Beste baten mutil batzuk, Santi hareen artean, joan dira kordelak botatzera errekarra, ea arrainik harrapatzen eban. Bota kordelak eta etxera etorri ei ziran, eta hurrengo egunean kordelak jasotzeko esperantzan joan eta bat falta, eta ezin bilatu. Orduan komentatu eutsen Santiri kordel bat galduta egoala. Santi zuzen joan ei zan, "hementxe egon behar dau, ze azkena hementxe bota zan". Esan eta izan, han egoan kordel hori.

Zeozter badauke guk ez doguna, inoiz egon nintzan sinistu ezinik berari begira, hitzik egin ezkerro momentuan konturatzen zan nogaz egoan eta.

## **EUSKALDUNA IZATEA ZER DAN**

Euskalduna izatea zer dan edo ez dan disputa batzuk entzun ditut. Neuk be izan neban gizon bategaz honen kontura. Berak seme bi zituan, eta nire galdera ea euskaldunak ziran izan zan eta harek, baietz, Euskal Herrian jaio dirala eta bata euskaraz ondo egiten ebala.

Orduan seme euskaldun bat daukazu esan neutson, eta berak ezetz, hemen jaio ezker euskalduna zareala.

Nik esan neutson: "badaukadaz ilobak aberatsen etxean jaiotakoak, baina hareek ez dira dirudunak. Pelotariak be asko izaten dira, baina txapeldunak gitxi, eta Euskal Herrian jaio arren euskaraz ez badaki, ha ez da euskalduna, euskara-duna da euskalduna bakarrik".

### **1987ko OMENALDIA**

1987ko martxoaren 19an, San Jose egunean, Amaiur Elkarteak omenaldi bat eskaini eustan Markinako Frontoian.

Goizean Arrateko Herri Irratira joateko gonbidatu ninduen, hango Bernardorekin hitzaldi bat egitera, harek galderak egin eta nik erantzun. Azkenean bertso bat eskatu eustan eta hau bota neutson gitxi gora behera:

*Arrateko Amari  
ari naiz eskatzen  
ia laguntzen diran  
San Joseik pasatzen  
Markinako frontoian  
ez banaz hondatzen  
zuekin izango naiz  
Barinan afaltzen.*

Omenaldiko aurreko astean esan eusten zer esango neutson nire omenaldira etorren jendeari, bertso batean esateko.

*Zazpirak alkartzea  
degu gure lana  
garbi azaldutzen da  
deseatzen dana  
nahiz dala herrikua  
nahiz dala kejana  
etorri zaretenoi  
besarkada bana.*

Bertso hau paperezko letra haundiak egin eta tarimaren ezkerreko aldean, jendeak ondo irakurtzeko moduan ipini eben.

Omenaldi eguna heldu zanean, gure BUZTARRI tabernan elkartu ginen bertsolari mordo bat eta hareekin joan nintzan frontoara.

Aurkezle moduan Gabixola egoan, eta gai-jartzaille Arregi. Hasiera Mugartegik emon eutson bost bat bertsoekin. Nire arimaren barrura sartu ziran bertso hareek. Alde batetik pozik eta bestetik estu egon nintzan.

Beste bertsolariak Jose Agirre, Lazkao Txiki, Azpillaga, Amuriza, Lopategi eta Mañukorta ziran. Soinu-panderoak, Kepa eta Mutriku. Nirekin bertsoeskolan ibilitako hiru gaztek be agur bana kantatu eben. Honeek Juanjo, Iñigo eta Aitor izan ziran.

Gero sari mordo bat emon eusten, eta amaitzeko hiru bertso kantatu nebazan.

Amaitu ondoren ehunen bat lagun Bariñara afaltzera joan ginen.

Afari hau Taberna Barrin egin genduan, bai afari ederra jan be; amaitu orduko etxeko andrea mahaira etorri zan sari eder batekin; orduan, aldamenetik eskatu eusten etxeko andra horrerri bertso bat botatzeko. Hau izan zan.

*Taberna hontan bílatu degu  
sendi bat oso otzana  
afal ondoan etxeko andrea  
inguratu da gugana  
erregalua eder askua  
eta gainera laztana  
Maria Jesus bihotzekua  
sekula ahaztuko ez dana.*

Handik aurrera makina bat bertso eta txiste bota ziran, guk alde orduko uste dot jendea aseko zala.

Egin genduan bertso jardunalditxo bat etxeko andriak eta biok, oso ederto moldatzen zan bertsoan.

Danak urten eban nahi baino hobeto, ondo pentsaturik egun eder bat izan zen.

## **ORAIN DALA GITXIKO GORABEHERAK**

Lehen esan dodan moduan, nire aita laurogeita bi urtegez hil zan, eta nik ezagutu neutson gaixo bakarra erreuma izan zan, ta guk anaia-arreba danok gaixo hori dogu. Ni be orain dala gitxi erreumak txarto hartu nau. D. Ricardo Franco Vicario jaunak Basurton ingresatu ninduan. Hau 97ko uztailean izan zan. Han egon nintzan hamar egun osagile artean eta egia esan oso ondo tratatu ninduen Basurton. Emakume jatorrak be baziran, Itziar eta abar. Azkenean medikuak Benidormera bialdu ninduen, eta orain alaba nagusia Valencian bizi danez, ba han joan ginen emaztea, alaba eta neu, Valencia, Altea eta Benidormera. Han itxura danez humedade gitxiago dago.

Valencian, El Palmar herrian, pozu handi bat dago, itsasoaren antzekoa, baina ur motelagaz. Han kilometroak egin genduzan, itsasontzi txiki batean, eta ez zan amaierarik ikusten. Ur hau erregadioak egiteko erabiltzen dabe. Arrainez beterik dago leku hau, eta elementu ederrak gainera. Itsasontzi horretan goazela arrain batek salto egin eban uretatik, nire gainetik pasatu eta nire emaztea buztanagaz aurpegian jo eban, eta barriro uretara joan zan. Itxura danez igerri utson, gure andrea arrain askori burua eta tripak kendutakoa dala.

Bertso hau bota neutson arrain gaiztoari:

*Arrain gaizto horren kontra  
ipiniko dizut nota  
nire emaztiari buztanarekin  
aurpegian jota  
ia uretara bota  
besteik ez gendun falta  
berak nahi dula hori egin du  
lotsaríkan ez dauka ta*

Gero hor bertan, El Palmarren, jan genduan paella ikusgarria. Oso famatua da herri hori paella kontuan; jende asko joaten da asteburutan bakarrik paella jatera. Gu bi bider joan ginen eta hurrengoan be badot asmoa joateko Jaungoikoak nahi badau.

Bertso honeek Basurton ingresatuta nengoenekoak dira:

*Hutsan faltan ez da heldu  
juateko eguna  
eskerrak billau doten  
honako laguna  
zure ezian munduan*

zelako hutsuna  
zuk sendatu didazu  
nere osasuna

Osagileak daude  
Basurton ugari  
ondo kasu eiten jako  
hara doianari  
garbitasuna asko  
egia da hori  
sendagairik onena  
ez al da berori

Neska txiki polita  
lanian azkarra  
egunakin batera  
bizten dan izarra  
Itziarreko amak  
beraren adarra  
gabian argi egin  
liteken bakarra.

Gelara sartutzian  
egunon aurrena  
beti kontu alaai  
horrek dakarrena  
harrituzkoa da  
Itziar horrena  
bera txikiena ta  
danin gogorrena.

## HONI ETA HARI IPINITAKO BERTSOAK

Neureekaz hasi orduko, nahi neukez nire emazteak gerra denboran Mutrikuko andra zahartxo batí entzundakoak gogoratu. Andra hori oso alaia eta kantaria ei zan. Hiru bertso honeek gogoratzen dodaz, baina gehiago ziran, berak asmatutakoak:

*Pobres hijos de Navarra  
que salisteis de los primeros (bis)*

*a defender la mentira  
por haber sido engañados (bis)*

*Maldita sea la guerra,  
más maldito es el dinero (bis)*

*es la lepra que se extiende  
por el universo entero (bis)*

*Alaveses y navarros,  
vizcainos y guipuzcoanos (bis)*

*siendo de una misma madre  
no nos dejan ser hermanos (bis)*

Azpeitia-Azkoitia aldean beti izan dira plazagizonak, aizkoran, karga jasotzen edo bertsoan. Ni handik ibili nintzanean Presaldegaz buztarriak egiten, gogoratzen naz gizon ospetsuak egozala. Hareen artean Errekartetxo, Arria

aita-semeak eta abar... Orduan eta gero be Azpeitiko zezen plazan joko asko egin dira. Ahari joko eta beste klase askotakoak. Orain be plazarik plaza ibiltzen dan bertsolari mordo bat dago Azpeitian:

*Lizaso aita-semeak  
Lazkano Espiritu  
Santuaren izenean  
Agirrek segitu  
amen esanda Euzkitze  
telebistan sartu  
azpeitiarren bertsuak  
esnatutzen gaitu.*

Joakin Unamuno, Sakoneta baserrikoa, nire emaztearen osaba zan. Gizon astuna zan hau, karga jasotzen be asko ibilitakoa, Itziarko Arteondoren kontra be egin eban jokoa. Aulestiko Frantziskagaz ezkondu zan, eta hara joan zan bizitzera. Hamahiru ume izan ebazan; hareen artean fraile eta monjak be badira. Etxera euren alaba Begoña ezkondu zan Iruzubietako Anitxu baserrikoarekin. Honeen semea Jon Sakoneta da, probalari handia, kontrariorik barik. Jon eta zezena auzo hurrenak, Zuberon sortu ziran bata zein bestea, biak be elizara be eroateko modukoak.

Oraindik be gizon indartsuak urteten dabe etxe horretatik:

*Jon Sakoneta bai dala  
hendía eta zabala  
ehun ta berrogei kilo pixua  
euskaldun totala  
probalaria itzala  
sekula ez dago argala  
hor ikusten da euki dozula  
ama on baten magala*

*Lanean jarri behar ditudaz  
burua eta eskuak  
esplikatzeko aina banitza  
handik eta honuzkuak  
ez da esateik ze indar duen  
Zuberon belar preskuak  
orain arteko markak egin ditu  
Sakonetairen ixkuak.*

Marurin be badira probazaleak, batez be Arrietatar Lino. Honek idi onak euki ditu, eta ez dago ahaztuta.

*Aspaldiko laguna  
Arrietatar Lino  
idiak maitiango  
teatrua baino  
lengoan egon nintzan  
berak halan dino  
idi on batzun bila  
dabil oraindino.*

Gure lagun Iturrik istripu bat izan eban; pertsona behartsuei gertatzen jakez holakoak: lana behar eta lanak hondatu. Honelakoa da mundua. Lehengo batean Gernikan ikusi neban eta lau gurpilen gainean ebilen, emaztea lagun ebal.

*Iturri zoritxarra  
euki dek munduan*



*aldeko zendun handik  
jakin bazenduan  
eta hortan gelditu  
zinaden orduan  
eskerrak andre ona  
eduki zenduan.*

Aspaldiko lagunak eta ezagunak gogoan izaten dira batez be gabonak bueltan, eta eurekin egoterik ez bada be, askotan bururatzen jat bertso batzuk jartzea lagunei eta konfiantza daukat ez dabela txartzat hartuko.

Jesus Egileorreri:

*Buztarrik zu ikusteko  
gogoa badauko  
Jesus Egileorrek du  
bertsoa gogoko  
honek ondoegi daki  
nik esan orduko  
al dozunian kanta  
ez itxi geroko*

Arregiri:

*Alkate ere egin  
ziñuzen Berritxuk  
buru haustiaz urtiak  
hortxe pasau ditxuk  
a ze nolako poza  
hartu genduan guk  
lehengo lagunak orain  
lagunago gaituk*

Txomin Garmendiari:

*Nere bertsua entzundakuan  
eta zure erantzuna  
inoiz izanda hainbeste jendek  
oso gustora entzuna  
oraindik ere estimatzen da  
garai hartako laguna  
ai! Garmendia, hor ikusten da  
bardin pentsatzen deguna.*

Azpillagari:

*Azpillaga hik daukak  
danetik saltzeko  
motiborik ez daukak  
daukana galtzeko  
apetitu galanta  
noiznahi afaltzeko  
berori nahikoa da  
ondo bizitzeko*

Lopategiri:

*Muxikatkan gora  
Lopategitarra  
berak eginda dauka  
etxe bat edarra  
lepoko makinakin  
ebaten bedarra  
lana gustaten jakon  
bertsolai bakarra*

Balentin Enbeitari:

*Enbeita maite nuen  
ta semeak berdin  
zuria ta gorria  
orlegiarekin  
kolore hau maite dunak  
behin be ahaztu ezin  
gorputza hilda baina  
bizi da Balentin*

Mugartegiri:

*Mugartegi noiz pasako dogu  
guk egun bat atsegina  
bazkalondoren bertsoak bota  
zazpina edo zortzina  
haren ondoren soinu pandero  
eta gainera dultzeina  
berotasuna alde izaten  
hartuko dogu txanpaina  
horri aspaldi utzita nago  
asko gustatzen jat baina*

Ni San Martin auzoan jaiotakoa naz. Uztailaren lehenengo domekan ospatzen da San Martin jai. Antolatzaileak pentsatu eben, auzo haretako laurogei urtetik gorakoei omenaldi txiki bat egitea (bazkari bat eta saritxo bat emotea). Esan eusten ea mezatan bertso batzuk kantatuko nebazan, baina orduan Basurton suertatu nintzan. Handik bialdu nebazan bertso honeek:

*Hemen azalduko det  
gordian naukana  
gehienok falta doguz  
aita eta ama  
hemendik asko dira  
haruntza joana  
e(g)in daigun haien alde  
otoitz bero bana*

*San Martin burukoa  
daukagu entzuten  
ondo eskatu ezkerro  
daki erantzuten  
segituko baligu  
indarrak emoten  
inungo minik gabe*

*urte mordo baten*

*Asko omendu dira  
aurtengo bileran  
larogetik gorakuak  
hor dagoz ilaran  
hona ailegatzia  
zelako zaila dan  
dakien asko dago  
San Martin bailaran.*

Nire lagun Esteban Arrietari bigarren semea hil jako. Bertso hau berarentzako:

*Oraindik hiru urte ez dira  
beste semia hil zala  
eta jakin det bigarrena ere  
neguarekin jun dala  
horrelakuak entzun ezkeru  
beti izan naiz makala  
gelditu nintzan entierrura  
juateko gauza ez nintzala.*

Harroari jarritako bertsoak:

*Atarramendu onik  
ez dauka harruak  
berak zabaltzen ditu  
bestien erruak  
jaio zanetik lotu  
zuala diruak  
obra onik ezin egin  
holako buruak.*

*Harruak badaduzka  
nunbait hartzekuak  
laister jakin dogula  
beran antzekuak  
holakuak badira  
danak etxekuak  
zer izan behar dute  
horren atzekuak.*

*Bestien bizkarretik  
busti nahi ezpanak  
azkar ezautzen dira  
holan dabiltzanak  
honen ametsak dira  
pikutara joanak  
ondo ez dira atera  
harruaren planak.*

*Burudunik ez bada  
etxean agintzen  
edo ez badituzte  
biziak kentzen*

*lanak izango dira  
horrela bizitzen  
beti izango zera  
harruak apaintzen.*

*Esango det zer degun  
harruaren nota  
soinian trajia ta  
lepotik gorbata  
erderazko berbakin  
altutik zarata  
bera nor dan ez daki  
beharrena falta*

*ikusitakoa naiz  
hainbeste gizarte  
jende harruarekin  
hartu degu parte  
horrelakuak beti  
soinu bat daukate  
kanpua aberatsak  
etxian arlote.*

Markinari ataratako bertsoak:

*Kalamuatik Santa Eufemira  
bitartin dago Markina  
oraintxe dala seirehun urte  
edo aurretik egina  
jaiotakoak eruten dira  
bautizatzer Xemeina  
heriotzia datorrenian  
daukagu bide berdina*

*Jaungoikoaren aginduetan  
ez gaitzezela erori  
egin ezker gauza ederra  
izango litzake hori  
eskupeko bat emoten bada  
ez da begiratzen nori  
jakinda gaude zor diogula  
lagundutzia alkarri.*

*Saso haretan egiten ziran  
torriak, etxe altuak  
geroztik jauregi asko eta  
eleizak ta konbentuak  
eza(g)utu ditut urkamendiak  
ondorengo arrastuak  
aberatsari parin txapela  
erantzeko momentuak*

*Sufritu eta gu salbatzeko  
kurutze baten hil zanak  
itxi giñuzen garbi ta argi*

*zer ein behar dan esanak  
geure burua bezala maite  
beste gainerako danak  
salbauko gaitu Jesus haurtxoa  
bere eskutan daukanak*

*Baserrietan gorde dirade  
gure euskeraren zainak  
beti alkarrekin izatekotan  
gure Jainkoak eginak  
mendiak ditu ibaiarekin  
zelaia eta jardinak  
hau danaugatik zeini eskertu  
badauka gure Markinak*

*Ahalegindu naiz gure hizkuntza  
bere jabe izan dedin  
itsasontzi ta herri zabalak  
beren baserriarekin  
legegizon ta mendiko artzaiak  
zergaitik ez dira bardin  
eskatzen degu gure legiak  
ipintzeko Euskadin.*

## **Argazkiak**

### **dinoskuena**

- ◆ Hauxe da nire jaiotetxea, Erlatx baserria.
- ◆ Arratsaldeetan neure lanak egitera joaten nazenean txabolara, askotan etortzen dira nire familiakoak bisitatzera. Hemen emaztea eta alaba etorri ziran, hiru ganaduntzako buztarria egiten nengoala. Hau Andrakasentzat zan.
- ◆ Hau Vitoriano Hernandez Memendi da, Laredokoa. Hor arestian idatzi dot berari buruz; probalaria da.
- ◆ Nire alboan dagoana Bermeoko Alegria da, eta beste aldekoa honen laguntzailea.
- ◆ Usurbilgo Arratzainen egon nintzan buztarri bat egiten. Idi gogorrak emoten eben; ez dakit izango dan hango bedarra oso ona dalako ganaduarentzat, eta goizetik gauera ez dago eguzki faltarik. Haizeak be holan jotzen dau. Sekulako parajea da. Etxe honetako sukaldean be mahai handia lako; seinale ona da hori. Emakumea be baliokoa; ni bi bider egon naz eta bietan mahaia beterik egoan.

◆

*Arratzainen badago  
nahikoa jateko  
borondatea ere  
doinai emateko  
klase danetarikan  
dago edateko  
a ze toki ederra  
bizi izateko.*

- ◆ Behekoa Mendatako Iterixe baserria da, eta honeek etxeko andra-gizonak. Gizona 93an hil zan, eta emakumea aurretik.

◆

*Inoiz egon bazara  
hemen baserrian  
laba eder bat dauka  
etxian aurrian  
erreka pasatzen da  
bien bitartian  
errota ere badu  
gelaren azpian  
baietz igarri nor dan  
hau irakurtzian.*

- ◆ Hau da nire lagun Lopategi, Muxikakoa.

◆

*Bizimodu barrixai  
nundik nora ekin  
Donostin bizi arren  
ez genduen jakin  
ondo ibili leikela  
soldau erropakin  
orduho sasoi eta  
gaur dakigunakin*

- ◆ Argazki honeek Markinako zelaian atarata dagoz. Nire lehengusu Jose Mari eta ni bertsoan hasi barriak ginen. Orduko gogo bailego orain beste gizon batzuk izango ginateke.

◆

*Urte baten jaioak  
gaituk Jose Mari  
aspaldi agur e(g)in nion  
sasoi eder hari  
orain beti begira  
azpiko lurrari  
gizonantzat seinale  
ona ez da hori.*

- ◆ Ni soldadutzan nengoala Pedro Azpiazu Donostian alfereza zan, eta ni honen laguntzaile izan nintzan.

◆

*Elgoibarren dagoen  
Pedro Azpiazu  
e(g)un askotan gogoan  
eduki zaitut zu  
ordu pare bat nigaz  
pasau nahi badezu  
Markinako Buztarri*

*zure zai daukazu.*

- ◆ Argazki honetan Bautista eta ni gagoz. Hau Garro baserrian bizi zan bere gurasoekin, eta lana Elgoibarren egiten eban. Ezkondu aurretik asko ibiltzen ginen alkarregaz, ze oso mutil alaia zan lagunarterako. Aita be famatua zan esaera politak botatzen. Gogoratzen naz baten bere graziagaz zelan esaten euskun ea zenbat estudiante betaurreko barik ezagutzen genduan, eta zenbat motxaila betaurrekoekaz.
- ◆ Argazki hau nire anaia Esteban ezkondu zanekoa da. Orduan ez zan orain lez, eta baserrira ezkontzen zana, bere emazteagaz egun batzuk hortik zehar pasatu eta etxera etortzen zanean, egiten zan afari ederra familia guztiagaz.
- ◆ Benito Baskan izan genduan soinu jotzailea, eta gu gau osoa bertsotan pasatu eta gero hemen gagoz aho sikua bustitzen. Gau horretan errondariak be etorri ziran. Honeek tragoa hartu eta dantzan egiten eben. Hurrengo eguerdian beste bazkari bat egiten zan, auzoko aitaamumekaz. Baserri-bodak horrelaxe izaten ziran.

◆

*Bautista bizi zala  
ibiltzen zan alai  
alkar maite genduan  
bertsua ere bai  
pentsatzen det za(g)ozala  
zeruan nere zai  
laister joango naiz da  
egon zaitez lasai.*

Argazki hau Amuriza espetxetik atara ehenekoa da. Azpeitiarrak ongi etorriko afari bat egitea pentsatu eben. Gu hemendik Arregi, Mugartegi eta ni joan ginen, baina beste asko be izan zan, hareen artean Lazkao Txiki. Honek eragin euskun nahiko barre, nahiz eta alaitasun hori ordu batzuk pasatu ziranean bertan behera jausi, ze etxeruntz gentozela irratian notizia tristea entzun genduan. Burgosen bost mutil gazte fusilatua ebezan.

*Andikonatik gora  
beitzen dunak Oiza  
nundik nora ibili  
pentsatzen du goiza  
leku onin badago  
ez du hartzen prisa  
idatzi ta irakurri  
nik baino erreza  
horrelakua dogu  
Xabier Amuriza.*

Plazakolatik Lekeitiora goazela, Laka-Erdiko baserrian sagardotegi bat ipini dabe. Fama handia hartu dau. Inaugurazino egunean han izan ginen afaltzen eta bertsotan Azpillaga, Mugartegi, Arregi, Xalbador Laka eta ni. Gauerdira arte jardun genduan bertsotan eta oso ondo pasa genduan. Aurten be San Isidro egunez han izan ginen Amuriza, Iratxe Ibarra, Peru Aranburu Natxiren semea Lekittotik, Etxebarritik Urta, Azpillaga eta ni. Egund bat pasatzeko ha ze leku ederra.

Kotxerik ez daukagunok inogaz joan eta inogaz etorri behar izaten dogu. San Isidro egun horretan be Iratxe Ibarren gurasoekaz joan eta Amurizagaz bueltatu nintzan. Horrelakoetan beti urteten dau txisteren batek eta Amuriza hasi zan kontatzen zelan bera abade egon zanean Gizaburun gazteak Xabier deitzen eutsela, eta zaharrak Don Jabier, baina zahar artean bat egoan beti Xabier deitzen eutsona.

Espetxean urte batzuk pasatu eta Gizaburura bueltatu zanean lagunak bisitatzera joan zan, eta han alkartu zan lagun mordo bat eta gazteak "Kaixo Xabier!", eta lehen aitatu dodan zahar honek "Kaixo, Don Xabier!", eta berak, "lehen beti deitu deustazu Xabier eta orain Don Xabier?". Eta haren erantzuna, "oraintxe zara zu Don Xabier, ez lehen".

- ◆ Markinako bertso-txapelketan hiru aldiz parte hartu neban, bitan bigarren gelditu nintzan eta hirugarren aldiz joan nintzanean lehenen gelditu nintzan. Argazki hau ordukoa da.
- ◆ Nire eskuman Anastasio Egia, Juan Mugartegi beste aldetik, horreen alboan Bautista eta Arregi. Nire aurrean jarrita nire anaia Migel eta haren alboan Liburio ondarrutarra.
- ◆ Argazki hau Ondarroan egin zan bertso txapelketa batekoa da; ez naz gogoratzen ze urtekoa baina bai zelan finalean Mugartegi, Azpillaga eta - ni gelditu ginen. Azkenean Mugartegi gelditu zan lehenengo, Azpillaga bigarren eta ni hirugarren.
- ◆ Argazki honetan soldadutza alkarregaz egin genduan lagun batzuk gagoz. Elgoibarko Txarriduna tabernan alkartzen ginen bazkaldu eta kontu batzuk kontatzeko. Lau gizon alde batetik eta lau bestetik daukazan gizontxo hau da galoidun bakarra, Esteban Arrieta Eskoriatzakoa. Beraren eskuman Segundo Aranguena Aulestikoa, Alberto Arregi Arrasatekoa, Mariano Ortolaiz Oizartzungoa eta ni. Txiki hau ez dakit nor dan. Ezkerraldetik daukoz Joakin Erkiaga Berritxukoa, Jose Florencio Iriondo Larruskaingoa, Alfonso Barrenkua Berrizkoa, eta hegalean dagoena Fermin Arrieta elgoibartarra.
- ◆ Hemen Ondarroako Bertso-jai baten gagoz. Zutik dagoana Alfontso Irigoien, honen aurrean jarrita dagoan lehenengoa Azpillaga, hurrengo Arregi Berritxukoa, Juan Mugartegi, Justo Aulestiarra, Kortatupe Larruskaingoa eta ni.
- ◆ Lehen Loiola irratan bertso-txapelketak egiten ziran. Ni orduan lanpostu barrian hasita nengoan Markinako Esperanza y Cia lantegian. Halako batean hor dator Jose Mari Iriondo ea joango nintzan irratiko txapelketa batera. Nik esan neutson ez baeukan besterik joango nintzala, ez nebala bakarrik itziko. Eta harek ni joatea nahi ebala. Ba hor joan nintzan, baina ez nengoan ondo, ezta gitxiagorik be; norbera konturatzen da ondo dabilen edo ez. Bosgarren gelditu nintzan, baina egia esan gustura. Lehenen Gorrotxategi, bigarren Etxebarria, hirugarren Goiburu, gero Iparragirre, hurrengo ni eta seigarren Armaitza.
- ◆ Argazki hau nire lagun Justo Loiolan ezkondu zanekoa da. Honeek gugaz bertsotan ikasten ibili ziran mutil gazteak: Aitor Elexpuru, Iñigo Ibarra, eta Juanjo Elordi.
- ◆ Argazki hau Bolibarren atarata dago, Simon Bolibarri egindako omenaldi batean. Hau "Fundación Sociedad Bolivariana del País Vasco" taldeak antolatu eban. Erdian dagoan gizon hau D. Francisco Abrisqueta Iraculis dogu, Simon Bolibarren asuntoan oso famatua. Maiatzean hil zan.
- ◆ Hemen Santa Ageda kantatzen dihardugu. Nire ondoan dagoana nire semea da. Aurreko aldean Jose nire anaia, panderoa jotzen nire lehengusu Zumiña eta ezkerreko soinu jotzailea Akoda; hau be gure auzokoa.
- ◆ Argazki hau Markinan egin zan lehenengo bertso-txapelketakoa da. Bertan Azpillaga gelditu zan lehenen, ni bigarren, Mugartegi hirugarren, eta Anastasio Egia laugarren.



- ◆ Nire loba Maria Jesus Ibarzabal ezkondu zanean Mugartegi eta ni ibili ginen jo eta su bertsoan. Orduko argazkia da hau.
- ◆ Lehengo batean Manuel Lasartegaz egoteko aukera izan neban. Berezkoa dan modura, gure gorputzak zahartu egin dira, baina Manuel lehen be ez zan makala eta orain be hizketan horrela segitzen dau.

◆

*Hik ganaduak perratzen  
ta ni buztargile  
gitxi geratzen gaituk  
lehen ginan mille  
gazterik urten gendun  
ogiarene bille  
jateko ez geranian  
sobrian opille.*

- ◆ Hemen Txapas, seme-alaba eta haren idiekaz nago. Proba asko irabazitako gizona da hau. Semea be arraunlari amorratua da; danak dira oso deportistak.

◆

*Gobernatzen ditula  
sinisten diot nik  
Txapase idi beltzak  
ez dute bildurrik  
ez dagola idirik  
ez dago gizonik  
indarrarekin zuri  
kenduko dizunik.*

- ◆ Hau zan buztarriak egiten irakatsi eustan maisua, Presalde. Hor jartzen dodaz alkarregaz pasatutako kontuak. Goian bego.

- ◆ Hau Laine Aurrekoetxeako anaia gaztea da, nire kintxua, eta idi-zalea. Orain be sei edo zortzi izango ditu; oso idi onak eukitakoa da. Honeek ezezik inbernaderoak be baditu; leku gitxitan izango da holako ortuaria, letxuga, kalabaza, sasoian sasoikoa, dana hartzen dabe. Han ibiltzen dira jo eta su alaba biak be barazkiak preparatzen, ze kamioiak etortzen dira hareen bila almazenetara eroateko, ze jenero asko eta ona eukitzen dabe.

- ◆ Marurin bada beste tabernari bat Patri izenekoa, sukaldari ikusgarria eta idiekaz be afizionatua. Orain taberna errentan dauko, eta idiak preparatzen ibiltzen da, bai gustura gainera. Ni leku haretatik ibiltzen nazenean hori da nire jantokia edo ostatua.

◆

*Iruña jatetxean  
haruntz edo honuntzian  
bardin da goiza eta eberdi  
edo arratsian  
taberna hortan sartzian  
Patri bada eskatzian  
sabelak bete ematen daki  
juaten geran bakoitzian.*

- ◆ Etxebarriatar familia Zamudio aldean dagoelakoan nago. Oso familia langilea, ikustekoa da ha etxaldea, zelako makineria, traktor eta tresna. Ganaduak be oso ondo gobernatzen dabez, benetan horretarako jaiok emoten dabe, ze danak ez dira izaten baserriar izateko jaiok:

◆

*Etxebarriatar hau  
nundik etorri zan  
ez nion galdetu ta  
ezin neike esan  
sendi bat finagorik  
ote leike izan  
otoitz bat egingo dut  
ondo bizi deizan.*

- ◆ Hemen gagoz Simon, Erretegiko nagusia eta ni. Simon hau lehen pelotaria zan, eta orain probalari bihurtu da. Berritxuko Oixeun baserrian bizi da:

◆

*Lagunari nahi diot  
bertso hau eskeini  
proba munduan dabil  
nik badakit zeini  
idiak preparatzen  
onena dan horri  
nahiz da merezi duen  
mailan ez ipini  
lehenengo eta bigarren  
dabilen Simoni.*

◆

*Berritxun Erretegin  
bikote berdina  
Eguren baserrian  
lan asko egina  
goseaz doienari  
kendutzen dakina  
askok eza(g)utzen ditun  
Juan da Martina.*

- ◆ Beste iloba bat dot Mutrikutik gora joanda, Olatzen. Hau Jose Mari da, eta taberna bat dauko jaten oso ondo emoten dauana. Zapoia jatera jende asko joaten da, gero berak jotzen dau soinua, eta nahi dabenarentzako aukera egoten da dantzari egiteko.

◆

*Nire onduan daude  
iloba eta anai  
pixka bat bizkortzeko  
soinua ere bai  
honetako aukerak  
ez daukaguz nunahi  
akulukin gu gaude  
dantzari eiteko zai.*

- ◆ Hemen nire arreba Jeronimagaz gagoz. Hau Mutrikun bizi da alargunduta. Ilobak etortzen dira askotan bere etxera, eta hareekin pasatzen dau bere denbora. Gu be noizean behin joaten gara, kontu pilo bat esan eta barre mordo bat egin eta pozik. Hemen be nire loba Jose Erlatxkuagaz joan ginen anaia Isidro eta biok.

◆

*Hiru anai-arreba  
alkartu gerala  
Jjeronima etzaude  
zu oso makala  
larogei urterekin  
zer andra zabala  
bere ilobatxo  
onduan duala.*

- ◆ Honeek Gernikako Makulueta sendia dira:

◆

*Zenbait pertsonak dauka  
betiko adue  
ikusitzekoa da  
hango ganadue  
zazpi anai-arrebak  
lanako gogue  
alkarri lagunduaz  
zer bizimodue.*

◆

*Bi harategi eta  
berrogeitamar behi  
txahalak ehunetik gora  
idiak ere bai  
beti alkartzen dira  
arreba ta anai  
luzaro irautia  
besteik ez degu nahi.*

- ◆ Makuluetako idi pareak.

- ◆ Taberna hau Laukiniztik Gatikara gatzela dago. Hemen edozein egunetan emongo deusue jaten, baina San Migel jai inguruan joan ezker, eskatu artxoa eta ikusiko dozue zelako janaria prestatzen daben, hatzamarrak txupatzeko modukoa.

*Inor aitatzekotan  
Laukinizko Sabin  
tabernan lana einda  
baserrian bardin  
zulako gizon asko  
behar da Euskadin  
dagon nagitasuna  
izkutatu dedin.*

- ◆ Argazki honetan Ormaetxe, eta honen idi preparatzailea Kastrejana dagoz. Ormaetxe hau Frunizkoa da, kamioi eta eskabadore askoren jabea. Anaiak eta biak lan asko egiten dabe, bai baserrian ganaduz beteta dabe eta, baita etxe azpian dauken garajeen makinak konpontzen be.
- ◆ Honen emaztea be oso langilea da. Famatua ganaduak manejatzen eta baita sukaldean be. Kastrejana hau Loiuko semea da, han be idiekaz asko ibilitakoa.

◆  
*Proba munduan gizon askokin  
 ibilia da Erlatxe  
 idi jabeak lehendakari bat  
 behar dabela hementxe  
 nik aukeratu behar banuke  
 Federiko Ormaetxe  
 sekula baino sasoi hobean  
 aurkitutzen da oraintxe.*

- ◆ Harria lantzen, igeltsero, karretero, eta baserrian lan asko egindako gizona da Josu. Hau bere denboran alperkeriarik ezagutu ez dauan gizona izan da. Lehengo batean egon nintzan beragaz eta oso gizon osasuntsua ikusten da.

◆  
*Askok eza(g)utzen degu  
 Meñakako Josu  
 itzai moduan beti  
 izan zera maixu  
 karrejuan eman da  
 makina bat pausu  
 zulako gutxi dira  
 jakin nahi badezu.*

- ◆ Idi hau Laine Aurrekoetxearena da, baina hau anaia zaharrenarena. Nik uste dot orain arte ikusi dodan idirik astunena hau izango dala.
- ◆ 1993ko Irailaren 7an hil zan Jose Antonio Iteria; honen emaztea urte batzuk aurretik hil zan. Emakume fina, lanari ihes ez eutsona egiten. Laurogei hektarea ei ditu baserriak; hori danori erabili eta umeei karrerak emon eutsezan, erre ezaten da...
- ◆ Argazki hau Jose Antonion entierro ostean ataratakoa da Mendatan, Enbeitatarren arrebak daukon tabernan. Nire alboan dagoan gizon gorbataduna Iteriako semea da, hau be fabrikantea, martxa handiko gizona. Hau gazterik hil zan, asko balio eban gizona. Hiru mutil eta neska bat ziran, orain bi gelditzen dira, Jose Antonio eta arreba. Hor gagoz Burgo, Antxia eta abar...

- ◆ Muxikako suhiltzaile baten idiak dira honeek, oraindik gazteak baina itxurazkoak. Etxe hau Gernikatik Muxika aldera dago, oso toki eder baten, mendi gainean. Etxetik hogeita hamar bat metrora ganaduak eukitzeko tokia dauko. Zaletasun handia dau proba-ganaduak eukitzeko. Orain gogoratzen naz Pedro dauala izena eta Axangiz aldean bizi dala.

◆  
*Andrea bi semekin  
 heuri laguntzeko  
 lekuri ederreana  
 haurrak hazitzeko*

*ganau indarra sobre  
lurak astintzeko  
ailegau naiz lekura  
ondo bizitzeko.*

- ◆ Nire semea Axabel baserrian bizi da. Harek be idi pare bat dauko. Nahiz eta kaleko semea izan asko gustatzen jako idi asuntua. Gaur egun kaleko seme asko ezagutzen dodaz afizio hau daukenak.

◆

*Ikusten da idiakin  
gustora zaudela  
aitak esandakua  
entzun biozula  
probak bakarrik  
ona izena duela  
ibilita da(g)onari  
galdetu bestela.*

- ◆ Niri kolpeta dagoen gizon hau Olegario da, idi honeen jabea, proba asuntua gustatzen jakona, bere aitari lez. Ha be probalari sutsua zan, laurogetaz urtegaz hil zan. Alboan doguzan beste bi horreek, Olegarioren lagunak dira, idiak erabiltzera etorrita.

◆

*Olegario Bilbao  
indar hotzekua  
ez dala hutsarekin  
bildurtutzekua  
jokuan ez da atzian  
geratutzekua  
hainbeste proba eder  
irabazikua.*

- ◆ Gondra sendiaren idi duranguak dira honeek. Piñu-barri auzoan bizi dira. Proba munduko afizio hori zepatik dator, ba lehengo gurasoak be horretan famatuak ziran. Semeak aireportuan lana egiten dau, aitak be bai lehen; orain barriz erretiroa hartuta dagoala uste dot, horrela denbora gehiago dauko idiak gobernatzeko.

◆

*Basainezen laguna  
geratzen da Gondra  
idiaren indarrak  
gustora emonda  
sarritan ibili da  
goi-maila igonda  
asko dominatu ditu  
patxadaz egonda.*

- ◆ Lañe baserrietan (bi dira), Aurrekoetxea anaiak bizi dira. Honeek idi terrañu banakin makina bat proba irabazi eben euren denboran; gero be idi asko egon da etxe horreetan. Egia esan, paraje haretan nahiko probazale dago, Martzelino Beitia, Juantxu Xoxue eta abar... Leku horretako jendeak, orain dala hogeita hamar urte lez Bilboko azokara jenero asko eroaten eben, eta honela nahiko diru irabazi, ze lehen ez zan kanpoko jenerorik ekartzen orain lez.

◆

*Lañe anaiak onak  
da semeak bardin  
ahal dana egin ezkeru  
gehiagorik ezin  
zuen kirola zaintzen  
eizue ahalegin  
hurrengo datorrena  
hor gozatu dedin.*

◆

*Martzelino izenaz  
hor dago Beitia  
estimatuko nuke  
ondo egotia  
beraren inguruan  
badauka jentia  
zaila da bertso baten  
danak esatia.*

- ◆ Benito Piñubari honek kamioiak daukoz txoferrekin zaborrak batzeko. Bere bizimodua arrebeagaz egiten dau, ba honek jatetxe bat dauko. Astia hartzen dauanean idiak preparatzen ibiltzen da. Pareja onak izan ditu, eta orain ibiltzen bada be, aurre samarrean izango da.

◆

*Benito Piñubari  
naukan aitatzeko  
idiakin kapritxuak  
ondo betetzeko  
dirua ere badu  
nunahi gastatzeko  
lagun ona da hori  
ondo pasatzeko.*

- ◆ Hemen nago pagoa astilatzeko zain.

*Buztargile-bizitza  
esango dot errez  
lanera urrutira  
etxeratu nekez  
etxian emaztia  
erritan hasarrez  
gizon nekatua ta  
dirurik ezer ez.*

- ◆ Argazki hau 1979. urtean atarata dago. Orduan ospatu genduzan zidarrezko ezteiak. Hamar edo hamabi bikote izan ginen, Xemeingo elizan meza entzun ondoren pintxo batzuk emon euskuezan, eta gero monjen komentuan bazkaria. Ospakizun hau askotan ospatzen ei da, 25 urte alkarregaz daroezan bikoteak eta baita 50 urte daroezanak be. Orain 50 urtekoa itxaron behar.

◆  
*Badakit zabiltzala  
nekatu samarra  
ezin dozu ibili  
lehen baino azkarra  
neri ere ari zait  
gastatzen indarra  
gero ta gehiago dot  
nik zure beharra.*

◆ Neska hau da nire gomutak jasoaz apunteak hartu eustazana, gero liburu hau egin ahal izateko.

◆ Mañukorta Jainkomendiko mutila dogu. Hau bertsomunduan gazterik hasi zan. Ameriketan be urte batzuk egin ebazan eta handik etorri zanean hasi zan serioago bertsotan. Orain erruki barik egiten dau beharra, bai baserrian, lantokian, telebistan eta bertsotan. Ez da mutil alperra. Bejondaizula, Mañu!

◆  
*Jainkomenditik dator  
falta dunan bila  
soltero egotia  
holako mutila  
behar baldin badezu  
hartu neskatila  
ordu an egongo haiz  
oiñ baino isila*

◆ Hau nire koinatu Jose Mari dogu. Hau baserrian jaio zan, eta baserria dau maite. Ganadua beti izan dau gustuko eta nahiz eta kalean beharra egin, gitxi edo asko beti izan dau ganadua baserrian. Hau lako baserrizaleak izan bagina, gaur egun ez zan baserri hutsik ezagutuko. Derrigorrean baserria itzi egin behar izan eban, bestela gaur egun be han biziko zan. Zortzi seme-alaba izan ditu eta zortzirik bizi dira. Hiru seme zestazko pelotariak izan dira, Ameriketan ibilitakoak. Jose Mari berari be deporte danak gustatzen jakoz, karga-jasotze, idiprobak, eta abar...

◆  
*Jose Mari jaio bazan  
oraingo epokan  
gehio ikusitzeko  
aukera gendukan  
karga jasotzen ona  
hobia burrukan  
heuk bakarrikan dakik  
zenbat indar heukan.*

◆  
*Zortzi seme-alaba  
daukazen gizona  
gazte denboran hainbat  
izardi emona  
lau burpilen gainian  
elbarri dagona  
hamabi bat iloba  
dituen aitona.*



*Goizian da gabian  
eta eberdixen  
heuri komeni jana  
hor dadukak maixen  
behar dan garbiketak  
ahal danik sarrixen  
ahalegintzen dituk  
ondo euki nahixen.*

- ◆ Anton Totorikaguena, "Lehoia", makina bat proba egindako gizona dogu. Berrogei idi-pareja baegozan, hogeita hamasei berak probatzen ebazan. Baserrian be beharra gogor egiten dauan gizona dogu.



*Trofeoz beterikan  
a(r)asaren baldia  
hara luzatutzen du  
beraren begia  
hutsak edo betiak  
badago aldia  
Anton sekula ez da  
hutsaren zalia.*

- ◆ Lehengo batean atara genduan argazki hau Busturiko Erregian etxean. Nire eskuman Erregia, eta ezkerrean honen emaztea. Zabale baserria da hau. Honen aitari be Erregia deitzen eutsen, nahiz eta bere izena Migel izan. Baserri honetan be beti ezagutu dodaz idiak.



*Mundu honetan bada  
makina bat turko  
Erregiak badaki  
nik esan orduko  
lagun onik ez dezu  
sekula salduko  
emazte ona du ta  
hau ez da galduko*

- ◆ Honeek Erlatx baserriko nire lobak dira idiekaz. Hor ikusten dan emakumea alargun dago neska-mutilekaz. Bi neska dagoz baserrira ezkondata euren bizilekuetan, alargun hau eta besteak bi mutil daukoz. Idiekaz dagoena eta beste anaia soltero dagoz eta Erlatxen bizi dira honeek be. Idi gazteak ditue mordo bat; onak gitxi izaten dira, ahaleginak egin arren.



*Konturatuko zera  
nere esanetik  
idiai emon jaten  
klase danetik  
hausnarrian ipini  
jokatu aurretik  
nausi geratzen baza  
bestien artetik  
orduan jango dezu*



*asko ta onetik.*

- ◆ Laudion be probalariak badagoz, Juan Ortiz eta beste mordo bat (argazkian ardian dago). Juan honen etxean askotan izan naz; idi onak ikusi izan dodaz baina oraintxe daukoz sekula baino hobeak. Saltzeko balegoz, diru ederra hartuko leuke.
- ◆ Hau bakarrik bizi da, baina etxe honetan ez da falta lagunik, bera be beti egoten da prest laguntzeko. Baratzean be jenero asko hartzen dau. Bere moduko beste bat bilatzea ez da erreza. Idi honeek gazteak dira, baina mantak bitan atara dabez, eta hau ez dago txarto, ba bitan joan dira eta bietan atara dabez.

- ◆
  1. Nire aitabesoetakoa.
  2. Nire aita.
  3. Pedro, nire lehengusua.
  4. Izeko Jeronima.
  5. Feliziana lehengusina.
  6. Nire anaia zaharrena.
  7. Nire ama.
  8. Isidro anaia.
  9. Arreba zaharrena.
  10. Esteban nire anaia (baserrikoa).
  11. Auzoko andra bat,
  12. Nire arreba Jeronima.

Ni eta nire anaia Jose oraindioko jaio barik gengozan.

- ◆ Andrakako taberna biak pasatu eta gora segituan dago Urrutikoetxearren idiak dagozan tokia. Toki barria dabil ganaduarentzat egiten. Gogo haundiaz ikusten da. Hau gaztetan txirrindularia zan, eta gaur probalari bihurtu da. Deportea asko gustatzen jako gizon honi. Haizea hartu eta sano ibiltzeko moduko lekua dauko mendigain honetan. Ea ba suerte on bat izaten duan.

***Bertso***

***Barriak***

## **BERTSO BARRIAK JUAN IBARZABALEK JARRIAK**

-1-

*Bilbora juañ giñan  
zortzi bertsolari  
Balentin Enbeita ta  
Deunoro Sardui  
Ireneo gaztea  
eta Mugartegi  
Ormaetxe zaharra ta  
bestia Alberdi*

*ta Azpillaga hori  
eta ni Buztarri  
hantxe giñan jarri  
estu eta larri  
goiz hartan pasa gendun  
nahikua egarri*

-2-

*Egun hartan nuen nik  
eztarria latza  
ahalegin egin arren  
ezin bozik altza  
lehenengotikan galdu  
nuen esperantza  
gaizki ote nenbillen  
hartu nuen antza  
batzuek gorantza  
bestiak berantza  
haura zan balantza  
nerbiyuak dantza  
pentsatu nola zegon  
nere bihotza.*

-3-

*Laurak aldian gero  
bazkari fuertia  
fidegu-zopa eta  
ardi-txuletia  
ardo epela eta  
gañian frutia  
hoitamabiña duro  
zan gure kantia  
kontu dezentia  
jaiki zan jentia  
zabalik atia  
libre juatia  
neri etzat ahaztuko  
orduko bueltia.*

-4-

*Neska zahar bat izan zan  
gu zerbitzekua  
hizketan ematen zun  
Kastilla herrikua  
gona motzak jantzita  
zabalik kolkua  
hanka okerrak eta  
bizkarra kakua  
gorputza sikua  
oingo modakua  
luzia pikua  
garbitu bakua  
danak iguindutzeko  
zer nolakua.*

## TXUTXO LARRAÑAGARI

-1-

*Aita-amak zituen  
Gipuzkuakuak  
Markina Etxebarrin  
bizi izandakuak  
seme bat emon eutsen  
gure Jaungoikuak  
harek betetzen ditu  
pelotalekuak*

-2-

*Bere jaiotz etxea  
frontoian atzian  
lehenbiziko pausua  
kantxara goizian  
handikan joaten zan  
mendira eitzian  
ez dagola indarrik  
nekatu ezian*

-3-

*Eskuaz hasi ziñan  
lehenengo pelotan  
parekorik etzendun  
herriaren bueltan  
bazegola indarra  
zure besuetan  
hala esaten zuten  
gure auzuetan.*

-4-

*Aitak esaten zuen  
bai Jesus guriak  
ondo ikasi ditu  
plazako legiak  
erakutsiko ditu  
abillidadiak  
hondatutzen ez badau  
indar gehiegiak.*

-5-

*Aitak semiarekin  
bazun konfiantza  
urte gutxian goiko  
mailetara altza  
bistiakin batera  
indarra ta gatza  
laster bete zenduan  
aitan esperantza.*

-6-

*Etxebarrin jaiota  
Etxebarrin bizi  
atzerrira joanda*

*han ere nagusi  
guztiak badaukate  
hortik zer ikasi  
erakutsi ederra  
eskerrak Jesusi.*

-7-

*Txutxo Larrañaga da  
seme sendo hori  
argi egiten dio  
pelota lanari  
honelako semeak  
bagenduz ugari  
ha zelako bultzada  
Euskal Herriari.*

-8-

*Hogetaemeretzi bat  
urte berarekin  
txapeldun gelditu da  
edade horrekin  
gazteak pentsa behar  
bost sentiduakin  
sasoian izan balitz  
zer zegon horrekin.*

-9-

*Atzeko txokotikan  
hartzen du pelota  
tantua egiten du  
horma biak jota  
jendiak esaten du  
aurkitik jasota  
Txutxok daki bakarrik  
hori zelan bota*

-10-

*Bestek ez leuke joko  
ona izan dek hik  
ahaleginak ein arren  
ezin esan det nik  
munduan ez da izan  
oraindik mingainik  
hi zenbat izan haizen  
esango duanik.*

-11-

*Herriarentzat beti  
izan haiz zuzena  
geuaz ez egotea  
hartzen dian pena  
urruti entzun arren  
gaur hire izena  
beti aitortu izan dek  
hemengo haizena.*

-12-

*Herriak maite zaitu  
hau ez da gezurra  
Euskalduna zera zu  
mamin da hazurra  
beti goguan izan  
amatxo samurra  
eta ezin ahaztu  
jaio ziñan lurra.*

## **SEMEA KOMISALDEGIRA EROAN EBEN EGUNA**

-1-

*Hasiera edarra  
eman du martxoak  
ardinarruz jantzita  
barrutik otsoak  
gosiaz handik honuntz  
datoz gehientsuak  
Judasenak egiten  
kriminal paltsuak  
gure herrian ere  
badaure batzuak.*

-2-

*Hiru seme-alaba  
eta bi eraman  
guk ezingo diogu  
asko gehio eman  
bata askatu dute  
bestia kartzelan  
neu eramango naute  
hurrengo osteran  
honenbeste gorroto  
nik ez dakit zelan.*

-3-

*Gorroto zatar batek  
zenbat indar duan  
esango leukianik  
ez dago munduan  
poliziak semia  
ohetik eruan  
eta akusau dute  
kriminal moduan  
orain ipini dute  
Judasen eskuan.*

-4-

*Noz ikusiko degu  
Euskadi batua  
banatuta dabilen  
madarikatua  
seme bat han dadukat  
kartzelan sartua  
eta izan be hartu*

*kristonak hartua  
emakumerik gabe  
da esposatua.*

-5-

*PNV kenduta  
gora bizkaitarra  
ezagutu nahi hada  
lehengo lege zaharra  
ondo entzun bagendu  
Sabinon didarra  
hemen etzan paltako  
behar dan indarra  
eta ezautuko zan  
Euskadi bakarra.*

-6-

*Seme hartuta zaude  
kontseju edarrik  
nahiz eta danak izan  
zuretzat alperrik  
hitzik eiteko ere  
ez daukat indarrik  
baina izaten bozu  
aitaren beharrik  
oraindik maite zaitut  
ez egin negarrik.*

## **EUGENIO ANTXIA KARRETEROARI**

-1-

*Gizon bat ospetsua  
sortu zan Albizen  
hogeita bi urtekin  
itzai ibili zen  
horrek heziak dira  
makina bat zezen  
bera beste bai baina  
hobaik ezin izen.*

-2-

*Berrogeitamazortzi  
urte handirekin  
plazan ikusiko zu  
akuluarekin  
biak tokatzen baituk  
ganau berdina  
harek eindaku ontzen  
alferrik ez ekin.*

-3-

*Idia jartzen bada  
treta txarrerako  
erakutsiko dio  
berau onerako*

*pausoik emoten badu  
ustel parterako  
hurrengo pasatzian  
akordauko jako.*

-4-

*Eugenio Antxia  
beti afanetan  
ibiltzen zera zu  
askon ezpanetan  
kontura(t)uko bagina  
haren esanetan  
mejorak egin leizke  
probalekuetan.*

-5-

*Proba jokatu eta  
alde ordurako  
afari bat jatia  
gustatuzen jako  
guk biok egin degu  
hamaika halako  
kontu nahiko esanda  
pozik etxerako.*

-6-

*Itzal handia dauka  
oraindik Antxiak  
halan aitortzen digu  
gure probintziak  
ezingoguz kontatu  
eindako untxiak  
agur Eugenio eta  
etxin gorantziak.*

## **NIRE AMAREN HERIOTZA**

-1-

*Mila bederatzirehun  
berrogeita bata  
otsailak hogeita bi  
eta larunbata  
hamarrak baño leno  
bederatzik jota  
goiz hartan hartu gendun  
disgustu galanta  
hura baizan negarra  
amatxo hil zan ta.*

-2-

*Ama maitegarria  
juan zinan mundutik  
ia entzuteidazun  
zagozan lekutik  
horra bertso batzuek*

*semian agotik  
beti zugaz pentsatzen  
goizean goizetik  
nik etzaitut ahaztuko  
mundukuakaitik*

-3-

*Azkeneko arnasa  
eman zendunian  
hantxe egondu nintzan  
ohian barrenian  
nik ahal izan nuenik  
modu onenian  
otoitz egiten nuen  
zure izenian  
ama zeruratzeko  
bide zuzenian.*

-4-

*Bular ganin harturik  
esku ta besuak  
tristiak izan ziran  
orduak pausuak  
aitak amarentzako  
malko ta mosuak  
hori ikusi gendun  
fameli osuak  
hor azken partiera  
gure gurasuak.*

-5-

*Kanpo santuan sartu  
igande goizian  
entierrua egin  
lenako klasian  
senidiak guztiak  
hara batu zian  
lerrak egin genduzen  
ama hil ostian  
neri etzat ahaztuko  
bizitza guztian.*

## **SOLDADUTZARA JOAN NINTZANEAN**

-1-

*Mila bederatzirehun  
berro(g)eita bostian  
martxuak izan zuen  
lehenengo astian  
militar zahar haiekin  
bildurra airian  
lehenbizi Bilbaon da  
gero Donostian.*

-2-



*Bilbora juateko  
genduen ordena  
Atxurin hartutzeko  
Donostiko tren  
nik gutxi ulertzen nuen  
esaten zutena  
hor nabarmentzen ziran  
lotsaik etzutena.*

-3-

*Holan izaten ziran  
gure zentiñeltzak  
bizkarrian fusila ta  
kartutxera hutsak  
gibela hainbestekuak  
genduzan arrautzak  
hara zer zerbitzen zun  
gure soldadutzak.*

-4-

*Hiru pezeta zala  
soldauan gastua  
gaiñian manta zahar bat  
azpian lastua  
zorria ta zikina  
hango arrastua  
holan zerbitu gendun  
gure ministrua.*

## **MARI ASUN ETA FELIXI (nire lobak)**

-1-

*Lehenbiziko bertsua  
lagun zahar Felixi  
ez dan gauzik esaten  
ezingo naiz hasi  
oso lagun polita  
ein dezu erosi  
gaizki tratatzerikan  
ez luke merezi  
aingeru bat dirudi  
erropa ta guzi.*

-2-

*Deseo zendun eta  
heldu da eguna  
gaurkoan hartu dezu  
zeuretzat laguna  
horren deseoz dago  
probatu ez duna  
behatza apaintzeko  
jantzi eraztuna  
pisurik ez du baina  
da karga astuna.*

-3-

*Osabaren esana  
entzun Mari Asun  
buruhaustek datoz  
ez dakit dakizun  
mundu hontan badago  
hainbat eginkizun  
esturasunez gerta  
ko bazina inun  
badakizu lagunak  
nun izten dituzun.*

## **ILOBA MARI KARMENI**

-1-

*Maiteminduok egunon pasa  
bardin senikera danak  
hauxe deseatutzen dizue  
orain kantatzen duanak  
ondo goguan hartuta egin  
apaiz jaunaren esanak  
urte askuan gorde zaizala  
gure Erdotzako amak.*

-2-

*Iloba maite parka zaiguzu  
gure etorri ezina  
oraindik ere ezin osatu  
hartuta daukagun mina  
nire partetik hartu zazue  
besarkadarik haundina  
emaztearen partetik berriz  
mosu bana edo bina.*

-3-

*Ezkon berriei kontsejutxo bat  
daukana hainbat garrantzi  
zuen artetik sortu liteke  
haurren bat bihar o etzi  
lehendabiziko lan hauxe egin  
ikurrin batekin jantzi  
Euskal Herriko mujoiak ere  
nundik diran erakutsi.*

## **JULIAN BIZKERRARI**

-1-

*Hara kamineru bati  
bertsoa nahi diot jaurti  
ez dabil nere urruti  
atxur handi baten anparuan  
sarritan egon da zuti  
ez da bizitzen bildurti  
tabernan danen aurreti  
holakoxia da beti.*

-2-

*Baldarra eta jasua  
dauka bitako kasua  
janian kuriosua  
lana egin behar danian be  
hartan ere erosua  
belaun, gerrí ta besua  
nekatzen animosua  
ez balitz biziosua*

-3-

*Goizian zutikan justu  
hanketatikan narrastu  
lanikan ezin erreztu  
hamarrak bueltan nahi duenari  
egingo diot apustu  
hark baietz litro bat hustu  
eta lanerako poztu  
beste arreglurik eztu.*

-4-

*Tabernatik bazkalduta  
kopa batzuek hartuta  
katarro zaharra solduta  
bide ertzian ikusiko zu  
botila batí helduta  
barrutikan umelduta  
dabil ezin ixilduta  
dana alperrik galduta.*

-5-

*Inoiz tabernara juanda  
afari ederra janda  
atera degu demanda  
bera zuzentzen ahalegintzen naiz  
lagun handiak izanda  
lehendikan daukat esanda  
galduko dala edanda  
patxarrari gogor emanda.*

-6-

*Alkarrengana batute  
Txominekin bazkaldute  
puru galantak hartute  
egun ederra pasako diau  
portauko gaituk dezente  
hasi gaitazan pentsaute  
ez dek falta urte bete  
agur San Andresak arte.*

## **JOXE ETXEBESTERI**

-1-

*Zorionak zuretzat  
Joxe Etxebeste  
hainbat ute pasata*

oraindikan gazte  
egun on bat igaro  
senar da emazte  
eta zure sendiak  
beste horrenbeste.

-2-

Joxe Etxebeste hau  
Errenterikua  
zer jana dan lekuan  
tripa handikua  
Bizkaira etorrira  
jan zuen nahikua  
lehen ere sobran gendun  
hire modukoa.

-3-

Gerra pasatu eta  
gose inguruan  
Markinako zelaiko  
komunen onduan  
andaluza dala ta  
pasatu genduan  
hobe buelta emanda  
bildu bagenduan.

-4-

Holan ibiltzen gaituk  
lagunak geranak  
bertsolarientzako  
honelako lanak  
parkatuko didazu  
gaur gaizki esanak  
bihar zati bat eta  
hurrenguan danak.

## ERLATX BASERRIARI

-1-

Erlatx mendian zutik  
dagon baserria  
gure guraso onak  
landuta jarria  
ganadu ta sagasti  
ardo ta garia  
patata eta baba  
da ortuarria  
hortik moldatzen zuten  
gutzat janaria

-2-

Hementxe hartu nuan  
lehenengo arnasa  
gero ikusten hasi  
eta bizi poza

*ez nuela aurkitu  
paraje eskasa  
sarritan etorri naiz  
honuntz egun pasa  
zure onduan aina  
ezin inun goza.*

-3-

*Baserri honetantxe  
ni jaio nintzala  
geroztikan bizi naiz  
goguan dotela  
sukalde ta dolada  
korta eta gela  
goraldu nahi zaitugu  
da ez dakit zela  
etzaitugu eskertzen  
merezi bezela.*

## **SIMON BOLIBARRERI**

-1-

*Gure lurrian anai arteko  
gerra gaizto bat izanda  
eta geroztik beti daukagu  
amaitzen ez dan demanda  
anai batzuek salbatu ziran  
Venezuelara juanda  
mesede hori ez da ordaintzen  
eskerrik asko esanda.*

-2-

*Iduri bat ere egin zuten  
eta pelota lekua  
herri txiki baten egiteko  
hori ere premiazkua  
bihotza ere biguna eta  
karidadeko eskua  
zorrik ez duten toki horrentzat  
ez al da gehiegizkua.*

-3-

*Venezuelatik etorri zaigu  
Bolibarren ministrua  
puestu horretan etzan sartuko  
izan balitza trastua  
odoletikan euki behar du  
euskaldunan arrastua  
gure kuadrillan etzan sartuko  
izan balitza gaiztua*

## **OIZ BARRENEKO BASO BALTZA**

-1-

*Ahaztuko ez dan eguna daukat*

*Kontzesinoko bezpera  
Oiz barreneko baso beltzetik  
guk egin gendun jeizkera  
hau egindako okerra berriz  
konpondu edo jostera  
Poliklinika San Antonion  
kristorenak ikustera.*

-2-

*Pago zahar honek dirala eta  
begira zelako lanak  
hiru lagun ginaden bakarrik  
orduak gertu ginanak  
eskerrak bi mutil hantxe zeuden  
indar asko zaukatenak  
bestela bertan hustuko ziran  
nik naukazan odol danak.*

-3-

*Mendi haretan badu indarra  
egurrak eta sasiak  
zer esanik ez goitik datorren  
ujelak eta basiak  
ez ginan izan oso egoki  
haien gainetik pasiak  
eskertzen ditut handik etortzen  
lagundutako gaztiak.*

-4-

*Askotan hola izaten dira  
mendiko irabaziak  
golpe batekin egin nituan  
ebagi eta hausiak  
harek ziraden izardi hotzak  
harek ziran oinaziak  
hau ere nitzat gordeta zeukan  
abenduaeren zazpiak.*

-5-

*Egun horretan aurkitu nintzan  
laguntasun egarriz  
nigaz ibili ziraden haiek  
eskertzen ditut mila aldiz  
haien eskuak busti nituan  
odolez eta izardiz  
galduta nengon zuen laguntza  
nigan etorri ez balitz.*

-6-

*Aldapa eta haren lehengosu  
nituen nire hurrian  
hainbat bidian etorri nintzan  
mutil haien bizkarrian  
harek ein zuten egun haretan  
nerekin gizon lorrian*

*nik ezin neike hori ordaindu  
nago betiko zorrian.*

-7-

*Menditik behera jazkera hartan  
maite nun lagun urkoa  
hauxe izan zan nere moduan  
orduan esandakua  
nagon lekutik dei e(g)iten dizut  
entzun zaidazu Jainkoa  
pekatu danen parkamenako  
izan dezala gaurkoa.*

-8-

*Markinan gero anaiak eta  
bi mutil kruz-rojakuak  
izan ziraden kotxe barrutik  
eskutan hartutakuak  
une haretan lehertu zitzaidan  
begietara malkuak  
da esan nien egunen baten  
ordaindukoizu Jainkuak.*

-9-

*Gure herriko osagileak  
ipini oskun martxia  
ate onduan han zeguen zai  
herrero anbulantzia  
argi gorria egiten zuen  
lau aldetan kurutzia  
hori izan zan orduan neri  
tokatzen jaten jantzia.*

-10-

*Poliklinika San Antonion  
nire oinaze egunak  
han ere asko lagundu zidan  
zeruko ama kutunak  
sartuta hurrengo egunian  
danak nituen lagunak  
lau monja etortzen ziraden da  
lautatik bi euskaldunak.*

-11-

*Osagile onak ziradela  
jakinda nenguan lehendik  
hainbat ahalegin egin ziraten  
Larrañaga da Bikandik  
harek goraltzen aspertu gabe  
saiatuko naiz hemendik  
zuek egindako mesedea  
goguan daukat oraindik.*

-12-

*Honelakuan asko lezake*

*emazte adoretzuak  
nere onduan pasa zituen  
hango egun gehientsuak  
gaixoarentzat indarra dauka  
familiako gozuak  
pozik haundiña eman ziraden  
nere umien bertsuak.*

## **ONDARRUTARREN ERREGUZ AITA AGIRRERI**

-1-

*Ujel gaiztoak tinkoiak bota  
besiak hausu ta eten  
barruan zeuden bildots umilak  
beren tokitikan urten  
banatu eta didarka daude  
artzai onai itxaroten  
Aita Agirrek dagon tokitik  
ez ote ditu ikusten  
beran etxeko barrutitxoan  
auzoko ardiak jaten.*

-2-

*Aita Agirre zer mingotsa dan  
atsekabearen mina  
lehenago baizik oraintxe ere  
badago zure premina  
gaur etzenduke ezagutuko  
zeu bizitako jardina  
aldameneko ota elmitzak  
sikatu du belar pina  
negar malkotan bustiko zeunke  
oraintxe bizi bazina.*

## **BIAFRAKO MISERIARI**

-1-

*Tresnaren bidez ikusi nuen  
zer miseria dun Biafrak  
halan bagengoz zer nahiko geunken  
kontuk atera bakoitzak  
lehendabiziko behar dutena  
janaria eta erropak  
harekin errukitzen ez danak  
kristautasunik etzaukak.*

-2-

*Narrugorrian pasatzeituzte  
bero danak eta hotzak  
hazurrak bistan darabizkite  
hautxo txikien gorputzak  
hau ikusita errukirik ez  
zer dira gure bihotzak  
harek be gure anaiak dira  
izanagatikan beltzak*



-3-

*Diru askoren jabe diranak  
zer pentsatzen ote dute  
munduan zehar aurrerapena  
asko dagola diote  
halan da ere gose danari  
ezin eman tripa bete  
bakeik ez dago akatz haundiak  
kentzen ez diran bitarte.*

-4-

*Kristautasuna duen guztiak  
munduakin arduratu  
jausitakoak gora jasota  
harrokeria baztatu  
nazio buru diranak ere  
badaukate zer pentsatu  
armakin baino ez ahal da hobe  
karidatea indartu.*

## **BELAUZTEGIRI, "AITXITXE"**

-1-

*Nik gizon hauxe ezagutzen det  
juan dan urte batzuetan  
indarran faltik ez dezu izan  
belaun eta zankuetan  
sarri askotan ikusi zera  
gure mendi gailurretan  
mendizaleak hilgo gerade  
Belauztegiri zorretan.*

-2-

*Alpino hortan ez da egongo  
zugaz oroitzen ez danik  
da Garmendia galderatxo bat  
egingo dizut hemendik  
mendian jaio, mendian hazi  
mendizalea izanik  
inoiz mendian pasau al dezu  
gaur bezelako egunik.*

-3-

*Bihotza lehertu egiten jate  
hontaritzen naizenean  
hainbeste urte pasa ondoren  
segitzen dezu lanean  
laguntzaileak ugari samar  
badozuz aldamenian  
besarkadarik maitekorrena  
Euskadiren izenean*

## **NIRE ILOBA BITXORIO ETA ISABELI**

-1-

*Bitoriano eta Isabel*

*bikote eder askua  
Arrateko amaren oinetan  
eman dute baiezkoa  
han jantzitako eraztunakin  
apaindurikan eskua  
esan liteke bat ein dirala  
Bizkaia ta Gipuzkoa.*

-2-

*Bitoriano, buztarri hori  
ez al da behintzat hausiko  
horren azpian lagun onakin  
nekez ez zera heziko  
itxura danez beti izan zera  
zure maitian graziko  
zure amak aina maite bazaitu  
txarto etzera biziko.*

## **BARINAKO "TABERNA-BARRI"RI**

-1-

*Merezi dituzte famak  
seme alabak da amak  
Bariñan dago Taberna Barri  
jakin nahi duanak  
hango jan eta edanak  
berotutzen gaitu danak  
handikan pasa beharko luke  
lehenago egon ez danak. (bis)*

-2-

*Andra ta gizon bitzuak  
jatorrak eta zintzuak  
zuek goraldutzeko badauzkat  
neronek bertsuak  
azkarrak eta zantsuak  
hau diote gehientsuak  
zuek lakorik ez dagoela  
dino jende jakintsuak. (bis)*

-3-

*Sukaldaritzan hain pinik  
ez dago zugaz berdinek  
egun osoan ibiltzen da  
lanian zutunik  
zu lako begi urdinik  
sekula ez dago zikinik  
halako baten gose diranak  
jango zaitue gordinik. (bis)*

-4-

*Esaten dizut menetik  
juten bazera lanetik  
edari onak emangoizue  
bazkaldu aurretik*

*janari asko danetik  
eta gainera onetik  
oso gustora irtengo zera  
ordaintzen dezunagatik. (bis)*

## **FAMILIARI**

-1-

*Gaba ta eguna lanian  
lehen egiten zanian  
orain bezela langabezia  
etzeguanian  
denbora gutxi janian  
erropa zaharrak soinian  
zintzo jardunda esker gaiztoa  
izaten zan gehienian. (bis)*

-2-

*Zaila da adierazten  
baina erreza ikusten  
zer kostatzen dan seme-alabak  
mantendu ta jazten  
gero eskolak ikasten  
urtiak pasa zituzten  
orduak geuk e diru askorik  
ez genduan irabazten. (bis)*

-3-

*Gizonak tresnak baditu  
dauzkanak hainbat meritu  
berba eginda, ikusi ondo  
gainera aditu  
sasoian indarra gehitu  
eta zahartzera amaitu  
urte askoren pixuak hemen  
horretxek hondatzen gaitu. (bis)*

-4-

*Burua ari da galtzen  
eta gorputza hondatzen  
hor falta dena denda batera  
junda ez da hartzen  
inun ez badago saltzen  
alperrik gabiz eskatzen  
gure Jainkuak lagun daigula  
falta jakuna pasatzen. (bis)*

-5-

*Hara emazte Martina  
goguan daukat Bariña  
gazte denboran hainbeste buelta  
haruntza egina  
zintzua zinan aintzina  
da etzinan hondakina  
orain bi gauza gelditzen jakuz*

*deseua ta ezina. (bis)*

-6-

*Juntura igarrak haunditu  
da alkar ezin zerbitu  
norberak nahi dun lako lekurik  
ezin da aurkitu  
hitzikan ezin aditu  
eta begiak gorritu  
nahi dan besterik ez da ikusten  
eta horrekin sufritu. (bis)*

**Badira senar-emazte asko proba munduan gustura dabiltzanak, baina badira bestelakoak be.**

GIZONAK - 1.-

*Idi pareta degu  
handia ta latza  
baba ematen diot  
lastua ta gatza  
inork ez du apurtuko  
gure idi baltza  
etxe-kalte naizenik  
etzazula pentsa.*

EMAZTEAK - 2.-

*Martxa eskasa degu  
juan dan aspaldixen  
almazenetik dakar  
pentsua burdixen  
hustutzeko alperrez  
hor dagoz ateixen  
mantakin tapatuta  
ni engainau naixen.*

GIZONAK - 3.-

*Neri ematen dabil  
alperraren famak  
sinistuko balio  
aditzen duanak  
etxean entregatu  
irabazi danak  
nahiko penitentzi du  
andre hau daukanak.*

EMAZTEAK - 4.-

*Barria bila(t)uko det  
hau berton lagata  
berrogei kilo ez dauka  
dan modun pixauta  
bestik baino gehiago  
izan behar duela ta  
etxeke familian  
oliua falta.*

GIZONAK - 5.-

*Auzoan sobre zegon  
neska bigurria  
sarri damutu jate  
etxera ekarria  
behiakin txahalak eta  
idi buztarria  
zer dala pentsatzen du  
gure baserria.*

EMAZTEAK - 6.-

*Hutsa egongo banintz  
lehenago bezela  
urte asko ez dirade  
etorri nintzela  
haragiak bota ditut  
sobratzen zait tela  
auzoak esango (d)ute  
goseak nuela.*

GIZONAK - 7.-

*Dirua ekartzeko  
egin behar da lan  
babaik ezin du ikusi  
idien ganbelan  
muturraz sukaldian  
zarataka gelan  
hemen baino hobeto  
bizi lef kartzelan.*

EMAZTEAK - 8.-

*Uztarriak ta perrak  
pentsu almazenak  
dirurikan ez dakar  
holan dabilenak  
taberna inguruan  
egunik gehienak  
itzaia ordaintzian  
dira karuenak.*

## **KATUA ETA SAGUA**

KATUAK -1 .-

*Zulo baten unten da  
bestian sartzian  
piztiak hor dabilta  
alkarren atzian  
katuak esaten du  
bere eretxian  
sagua erreterero  
txarra da etxian.*

SAGUAK - 2.-

*Armaixuan gainera  
saltoka jua da  
honetxekin e(g)iten du  
bere propaganda  
gero eguzkia hartzen du*

*lurrian etzanda  
holakorik ez da egiten  
zintzua izanda.*

KATUAK - 3.-

*Sagurik baldin bada  
etxian jaixota  
katuak e(g)ingo dio  
pizti horri kontra  
urunik probatzen badu  
errotan eixota  
ez dezu bialduko  
eskobakin jota.*

SAGUAK - 4.-

*Katua lastopian  
da luak hartua  
eta sagua dago  
lanin nekatua  
hainbeste gari ale  
tripara sartua  
nor dan langileagua  
atera kontua.*

KATUAK - 5.-

*Katuak noiz aldeko  
sagua dago zai  
lanik ez du egingo  
beti hartzen du jai  
garia jaten du ta  
ogia ta urdai  
aukerarik badago  
gaztaia ere bai.*

SAGUAK - 6.-

*Armarixuan laster  
e(g)in ditu zuluak  
eta papelez bete  
bere inguruak  
jaten ditu eskriturak  
eta liburuak  
horregaitik daki asko  
saguan buruak.*

## **NERE SEMEAREN ALABATXOARI**

-1-

Aingerutxo bat etorri zaigu  
guri poza ematera  
hasitakoan helduko zara  
andereño izatera  
disimuluan banijoala  
berau nor dan esatera  
Nahia deituko dizute beti  
ia hemendik aurrera.

-2-

*Haur txiki bat besterik ez da  
da falta ditu indarrak  
berak zergatik ez dakiela  
egiten ditu negarrak  
jostailutzako hartuta dauzka  
bere amaren bularrak  
handik sabela betetzen du ta  
gozaitzeitu atzaparrak.*

-3-

*Izar txiki hau dotore dabil  
berau nor dan erakusten  
eta aitona zaharra berari  
bertso batzuek abesten  
aman bularrak non ote diran  
laster hasi da ikasten  
beraren begirakuna harekin  
barrezka jarri gaituzte.*

## **NIRE LOBA BATI BERE LEHENENGO JAUNARTZEAN**

-1-

*Ikasi nahi badezu  
zer egin munduan  
aitonaren esanak  
eduki goguan  
gizon portatu zaitez  
etxe ta kanpuan  
ilunabarrerako  
amaren onduan.*

-2-

*Mutil jator jatorra  
hemen dago Iraitz  
zugaz hitz e(g)in beharra  
dadukagu sustraiz  
joaten ez bazera  
hemendikan apaiz  
ezkontzen zarenian  
ni etorriko naiz.*

-3-

*Honelako egun bat  
zutzat komeni zan  
mundu hontan zer barrí  
dagon jakin dezan  
neri etxat gustatzen  
sekulan ez esan  
lana e(g)in behar da ta  
alperra ez izan.*

## **UDAZKENEKO LORA BATI**

-1-

*Sasi tartean estali zaitu  
belar txarrak eta untzak  
mundu honetan danontzat daude  
zoritxarreko arantzak  
egunen baten milagroren bat  
egiten ez badu ahuntzak  
toki txarran ikusten ditut  
lore zure esperantzak.*

-2-

*Zuretzat hemen ez ote dago  
baratza edo jardinik  
kristauan pare loreak ere  
ez daukagu bizi ezinik  
batzuek sobre, besteak falta  
hau ezin ulertu det nik  
lorarik ere ez da egongo  
hori ontzat hartzen duanik.*

-3-

*Ikusten danez mundu hau ez da  
guztiontzako berdina  
batzuentzako sasi tartea  
beste batzuntzat jardina  
begiratuta ikusitzen da  
hor dagoan desberdina  
dagon okerra zuzendu leike  
ahaleginduko bagina.*

-4-

*Lore maitia ez det sinisten  
zure modukoik dauanik  
munduan ez da beste(r)ik egongo  
zure moduko berdinik  
inguru dena usain gozoaz  
holan ipintzen dakinik  
orain bezela urte askoan  
segitu ezazu zutunik.*

-5-

*Usain gozoko lore maitea  
sasi gogorran onduan  
arantz artean bizi izateko  
sortua zera munduan  
ama gabeko umezurtz haiek  
ibiltzen diran moduan  
halan da ere irauten daki  
guk ez dakigu zer duan.*

-6-

*Lehenago batean ikusi nuen  
nere etxetik urrian  
lore triste bat ezin bizita  
zer janik eztan lurrian*



*usain goxoa botatzen zuen  
jartzen bazinan parían  
bere izakera azaltzen zuen  
negu beltzaren aurrian.*

-7-

*Lorea ikusi orduko ere  
usaina hartzen du aurrez  
sasi tartean gordea dago  
negu beltzaren beldurrez  
egunen baten estaliko da  
txingorrez edo edurrez  
era hortako ezbeharretan  
zeinek lagundurikan ez.*

-8-

*Mota batean bizi izateko  
badaukazu adorea  
jardinekoak ez dadukate  
zuk baino usain hobea  
iduritzen jat gustagarria  
usaina da kolorea  
sendagarritzat balio duen  
udazkeneko lorea.*

## **LAZKAO TXIKIRI BERTSOAK**

-1-

*Bietarako abildadea  
eman zizun Jaungoikoak  
tristeak eta barregarriak  
zenduzan bietakoak  
sentimentuei heldu ezkerro  
zotinak eta malkoak  
izan ginaden zure aurrian  
sarritan botatakoak.*

-2-

*Asko balio zuen gizona  
izan zinan danerako  
sekulan ere galbanarikan  
etzun izan lanerako  
hainbeste lan on egin zenduen  
herriaren onerako  
zeure ondoan leku bat gorde  
hemendik goazenerako.*

-3-

*Geroztik sarri etorri jaku  
begietara malkua  
ez da metrorik neurtzekorik  
zure behetik gorakua  
gizon bakoitzak bete bagendu  
Jose Migelen lekua  
paradisua egin ziteken  
heriotzarik bakua.*

-4-

*Lazkao-Txiki deitutzen jakon  
da Lazkao-Haundi izan  
gure moduko gizon batekin  
konparatzekua ezan  
behar bezala eskertu gabe  
mundu hontatik joan zan  
sarri pentsau det heriotzian  
gure zai egon ote zan.*

-5-

*Zer gozarena hasten zanían  
txisteekin ta bertsotan  
berari barrez leher egin eta  
ez gendun gitxi gozetan  
geroztik egon izan naiz sarri  
buru makurka pentsetan  
hiltzeko pozik Lazkao-Txiki  
gero han ikusitzekotan.*

-6-

*Sasoi bateko barre guztiak  
bihurtu dira negarra  
itzali zaigu gure gainetik  
argi e(g)iten zuen izarra  
oraindik ere gure artean  
bazegon zure beharra  
gure malkoak kendu leikena  
Lazkao-Txiki bakarra.*

## **UMETAN LEHENENGO BURUZ IKASI NITUAN BERTSOAK**

-1-

*Bartzelonan soldadu  
ginan euskaldunak  
kantuak zabaltzeko  
guztiz berri onak  
pozikan gurasoak  
aitak eta amak  
baita neskatxak ere  
senarra nahi dunak.*

-2-

*Soldadu etorri ginan  
geure suertian  
zorrik bako morrontza  
hornitu artian  
ederra sartu digu  
lehenengo astian  
arratoia egosita  
garbantzuz tartian.*

-3-

*Soldadu etorri ginan*

*jendean galera  
loteri eder hori  
gugaz etorri da  
indarra jeitsi zaigu  
hirutikan bira  
gure indarren hotsak  
aplakatu dira.*

-4-

*Erropa militarrek  
hasi ginan jazten  
galtza handiak ere  
eman zizkiguten  
anega bina gari  
kabituko zuten  
iaz etziran estu  
lasaiago aurten.*

-5-

*Egunian bi aldiz  
formatu listatan  
honelako bildurrik  
ez gendun gaztetan  
zikinikan bilatzen  
bazuten galtzetan  
komuna garbitutzen  
kastiguz goizetan.*

-6-

*E(g)unez egoten gera  
lotarako pozak  
gainian manta zahar bat  
azpian ohol hotzak  
anima hil ein behar  
gau hartako hotzak  
halako(r)ik ez du behar  
izaten gorputzak.*

-7-

*Gabian lotarako  
daukagun kamaña  
ota aska bat bezala  
tabloiaz egina  
handik jaikitakoan  
saihetsetan mina  
maldezioka hasi  
nahian det mingaina*

-8-

*Geure diariua  
errial bana dirade  
haiek hartu orduko  
gastatuta daude  
gure jostorratz eta  
hari ta titare*

*tabernarako ez da  
sobratzen bat ere.*

## **NERE LAGUN BATEN SEMEA HIL DA, TXOMIN ARRIETA ARMENDARIZ**

*Heriotzaren azkena  
izaten da gogorrena  
gurasoaren bihotz barrutik  
kentzen ez dau pena  
nik izan banu ahalmena  
lehenengo egingo nuena  
zure semea sendatutzia  
lurrak estali dabena.*

## **NIRE KOINATA IGNAZIARI**

-1-

*Baserrian jaio zan  
bertan bizi zala  
urte mordo bat bada  
ezagutu nuala  
ezkondu ta fameli  
haundia duala  
kalera etorri zan  
da esku zabala.*

-2-

*Berezkua daukanak  
erresto ikasi  
jana ipintzen ez det  
holakoik ikusi  
bizkor da ona jartzen  
berau da nagusi  
hainbat tripa bete dun  
ama da Ignazi.*

-3-

*Etxe hortatik sarri  
urten det aserik  
ez da izango hortxe  
ez dagon klaserik  
jana emongo dizu  
da basua beterik  
Ignazi dan lekuan  
ez dago goserik.*

-4-

*Edozertaku danak  
ez du ezer falta  
horrek ez du aldeko  
lanari lagata  
kuadrillan ibiltzeko  
da oso aparta  
orain dauka denpora*

*jubilatzen da ta.*

## **MUGARTEGIREN OMENALDIAN DONOSTIAN NIK ABESTUTAKO BERTSO BI.-**

-1-

*Mugartegi entzun zak  
Buztarrik zer diñun  
hutsegite haundirik  
hutsegite haundirik  
ez dek egin inun  
Donostira batzeko  
honenbeste lagun  
gizon portau haizela  
gizon portau haizela  
hemen dek ezagun.*

-2-

*Hiretzako bi bertso  
lehehendikan zor nitun  
nahio nin hire amak  
nahio nin hire amak  
gaur entzun bazitun  
portau dituk Donostin  
da berdin Berritun  
askok maite hautela  
askok maite hautela  
egon bai jakitun.*